# EBAZPENA

## HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO SAILBURUORDEENA, BIGARREN HEZKUNTZAKO ETA GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO BERARIAZKO INSTITUTUETAN 2009-2010 IKASTURTEA ANTOLATZEKO MODUARI BURUZKOA

# AURKIBIDEA

## 1.- IKASTETXEKO JARDUERAREN PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA EGITEKO BALIABIDEAK

1.1.- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua eta ikasketa-proiektua
1.2.- Ikastetxearen hizkuntza-proiektua
1.3.- Kudeaketa-proiektua
1.4.- Ikastetxearen urteko plana
1.5.- Urteko txostena
1.6.- Antolakuntza- eta jarduera-araudia
1.7.- Elkarbizitzaren behatokia eta elkarbizitza-plana
1.8.- Hezikidetza
1.9.- Gela Egonkorren Curriculum-Proiektua

## 2.- IRAKASLEEN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK.

2.1.- Irakaskuntza-jardueraren antolaketa
2.2.- Asteko jardunaldia
2.3.- Zuzendaritza-karguak
2.4.- Irakasleen bertaratzea
2.5.- Sailak
2.6.- Orientabide Saila
2.7.- Zaintzak
2.8.- Tutoretzak
2.9.- Ikasleen tutoretza praktiketan
2.10.- Ikasle iritsi berriei arreta emateko irakasleak

## 3.- IKASLEEN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK.

3.1.- Eskola-ordutegia
3.2.- Eskolaz kanpoko ekintza didaktikoak
3.3.- Curriculum desberdinak eratzeko taldeak
3.4.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arreta
3.5.- Ikasle etorkinen eskolatzea
3.6.- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak
3.7.- Ikasleak eskoletara agertzea
3.8.- Erlijioa

## 4.-IKASLEEN EBALUAZIOARI BURUZKO ARAUAK.

4.1.- Ebaluazio-bilerak
4.2.- Kalifikazioei buruzko erreklamazio-eskubidea
4.3.- Salbuespenak eta baliokidetzak

## 5.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

## 6.- LANGILE ESPEZIFIKOAK

6.1.- Jantoki-arduraduna
6.2.- Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programako irakasleak

## 7.- HEZKUNTZAKO LAN KONTRATUKO LANGILEAK ETA HEZITZAILEAK

7.1.- Zeinu-hizkuntzaren interpretea
7.2.- Jardunaldia betetzen dela egiaztatzeko kontrola
7.3.- Bertaratze-agiria

## 8.- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

## 9.- IKT TEKNOLOGIA BERRIAK – PREMIA PLANA

## 10.- IKASTETXEETAKO OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA

# BIGARREN HEZKUNTZA. 2009-2010 IKASTURTEA

## HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO SAILBURUORDEEN EBAZPENA

Ebazpen hau Euskal Autonomia Elkarteko Bigarren Hezkuntzako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Institutuetako irakaskuntza arautuan ezarriko da. Lanbide Heziketako ikastetxeetan ematen den lanbide-heziketa ez-arautua Lanbide Heziketako Zuzendaritzak horretarako erabakitako jarraibideei egokituko zaio.

**Ikastetxeko Zuzendariak behar diren neurriak hartuko ditu, Ebazpen honen edukin osoa ikastetxeko irakasle guztiek eta bakoitzak ezagutzen dutela ziurtatzeko.**

Halaber, legez ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenei (O.O.G.) aitortzen zaizkien aginpideak eta Ebazpen honek azaltzen dituen gaiak kontuan izanik, **ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritza-taldeak Ebazpen honen edukinaren berri emango dio aipatutako Organoari, 2009-2010 ikasturte hasieran egingo den lehenengo bileran.**

## 1.- IKASTETXEKO JARDUEREN PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA EGITEKO BALIABIDEAK

Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Oinarrizko Hezkuntzaren eta Batxilergoaren curriculumak ezartzen dituzten 175/2007 eta 23/2009 Dekretuek azaltzen dutenez, zenbait jarduera antolatzeko, onartzeko eta gauzatzeko aukera izateak adierazten du ikastetxeek autonomia dutela.

**Ikastetxea antolatzeko baliabideen** artean hauek nabarmendu daitezke:

1) **Hezkuntza-Proiektua, Ikasketa-Proiektua eta Hizkuntza-Proiektua**

2) **Kudeaketa-Proiektua.**

3) **Urteko Plana.**

4) **Urteko Txostena.**

5) **Antolamendu eta Jarduera-Araudia.**

Ebazpenaren lehenengo atalburu honetan plangintzaren alderdiak azalduko dira eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztiek ikasturte honetan kontuan izan beharreko lehentasunak edo gutxieneko ezaugarriak ezarriko dira.

## 1.1.- IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA ETA IKASKETA-PROIEKTUA

Bi proiektuak elkarrekin oso lotuta daude eta ikastetxeetako pedagogi autonomiaren adierazle dira: eskola-elkarteko sektoreek hezkuntzako aukera baten alde egin duten apostua (hezkuntza-proiektua) eta horrek irakaskuntzan izango duen adierazpena (ikasketa-proiektua).

Ebazpen honetan ez dira azaltzen proiektu hauetako bakoitzak jaso behar dituen alderdiak edo zein organori dagokion lantzeko eta onartzeko ardura, Euskal Eskola Publikoaren Legean eta Hezkuntzako Lege Organikoan arautu baitziren.

Ikastetxe guztiek antolamendurako bi baliabide horiek, beti hobegarriak eta aldian aldian berrikustekoak, edukitzea beharrezkoa da. Ikastetxe bakoitza izango da, bere ibilbidearen eta ahalmenen arabera, 2009-2010 ikasturtean lehentasuna zein arlori eman eta arlo bakoitza nolako sakontasunarekin landu erabakiko duena.

Ikastetxe bakoitzak ahal beste zehaztu eta garatuko ditu ikastetxearen hezkuntza eta ikasketa-proiektuak burutzeko erabakiak. Eskatzen dena da erabaki horiek idatzita azaltzea, ikasturtean zehar lortu duten zehaztapen-mailarekin. Gogoeta-prozesuaren lehen emaitzatzat eta gero eman beharreko urratsen oinarritzat hartuko dira erabakiok.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikuluak dioenaren arabera, irakasle-talde guztiak eta irakasleak eurak ikastetxearen hezkuntza-proiektuari (IHP) eta ikasketa-proiektuari (IIP) loturik egongo dira. Horiei men egitearen barruan, eskolako jarduerak lantzeko eta programatzeko nahiz bakoitzak bere arloko jarduera-egitarauak aurrera eramateko egoki iritzitako erabakiak hartu ahal izango dituzte. Irakasle bakoitzaren erabaki horiek, dena den, beti egon behar dute IHPk eta IIPk ezarritakoaren mende, eta beraz, jarduerak prestatu eta programatzeko bakoitzaren eskumen horretan ere men egin beharko zaie OOGk (IHP) eta irakasleen klaustroek (IIP) behar bezala onetsitako kudeaketa-sistema edo bestelako antolamendu-neurriei.

Egoera horrek bultzatu behar du ikastetxeek prestakuntza eta berriztapen-prozesuak planteatzera. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila prozesu horiek laguntzen saiatzen da, prestakuntza-proiektutarako dirulaguntzetarako deialdien bitartez, ikastaroetara bertaratzearen bitartez, eta eskualdeko zerbitzuek edo kanpoko eragileek eskainitako aholku-lanaren bitartez. Prestakuntza eta berriztapen-prozesu horiek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak 2007-2010 hirurterako xedatu dituen lehentasun ildoekin erlazionatuta egon beharko dira.

Hezkuntzako Ikuskaritzak proiektuak aztertuko ditu, eta horretarako, orientabide hauek kontuan hartu beharko ditu, eta bere lana egin (aholkularitza/ebaluazioa), ikastetxearen ezaugarri eta lehentasunen arabera.

Ikasketa-proiektua errazago egiteko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak “Ikastetxearekin ikasketa proiektua egiteko gida”, izeneko liburua argitaratu du (Eusko Jaurlaritzaren Artigalpen Zerbitzua).

## 1.2.- IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA

Hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilpenarekin lotutako alderdi guztien plangintza egingo duen agiria da hizkuntza-proiektua, ikastetxeek egindakoa, beren hezkuntza-esparruan aplikatzeko. Hezkuntza-proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du hizkuntza-proiektuak, eta zehaztu egingo zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek curriculum-proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek eragin zuzena izango dute ikastetxeko beste agiri batzuetan; esaterako, barne-araudian, urteko plangintzan, barne- eta kanpo-harremanak arautuko dituzten printzipioetan, eta abarretan. Izan ere, azken horien bidez gauzatuko dira hizkuntza-proiektuan adostutako printzipioak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxeek, beren hezkuntza-proiektua aintzat hartuta, beren ezaugarrietara moldatu eta egokituko dute Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen 175/2007 Dekretuak egindako curriculum-planteamendua; halaber, aintzat hartuko dute hizkuntzak komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea dela bide egokiena elebitasunaren helburua lortzeko eta irakasgai bakoitzeko curriculum-edukiak irakasteko. Batxilergoa ematen duten ikastetxeek berdin egingo dute, otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuan xedatutakoa kontutan harturik, (2009-02-27ko EHAA).

## 1.3.- KUDEAKETA-PROIEKTUA

Euskal Eskola Publikoari burzko Legeak ikastetxe publikoen autonomia aitortzen du V. Idazpuruan. Autonomia horren agerbideetako bat ikastetxeek beren jarduera ekonomiko-finantzarioa kudeatzeko duten ahalmena da, ikastetxeak bere Kudeaketa-Proiektua onartu eta burutzean gauzatzen dena.

Ikastetxeek beren Kudeaketa-Proiektua izango dutelarik, OOGak eman beharko dio onespena, eta hauxe bera izango da betearazteaz arduratuko dena eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 28.3 artikuluan xedatutakoaren arabera proiektuaren betetze-mailaren ebaluazioa egingo duena.

## 1. 4.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

Ikastetxearen urteko plana koordinatzeko ardura Zuzendaritza-taldearena da eta, horretarako, kasu bakoitzean dagokion taldeko organoa izango du. Plana onartzea ikastetxeko Ordezkaritza-Organo Gorenari dagokio, Euskal Eskola Publikoaren Legeak Klaustroari irakas-jardueren programa dela eta aitortzen dizkion aginpideen kaltetan gabe.

Plan horrek ondoko hauek biltzen ditu bere baitan:

### a) Irakas-jardueren programa.

Egitarau hau lantzea irakasleen Klaustroari dagokio eta, hala egokituko balitz, hura ordeztu dezakeen batzorde bati.

Irakas-jardueren programan ikasturtean zehar ikastetxearen antolaketa eta garatu behar diren ekintzak biltzen dira, ikasleak eta dauden baliabideak kontuan izanik: irakaslegoari lanak banatzeko irizpideak, irakas eta ikastetxean egon beharreko ordutegiaren banaketa, ikasleen eta irakasleen ordutegiak, ikasleak taldeetan banatzeko irizpideak, orientabide-plana, ikasleentzako laguntza eta errefortzu-ekintzak antolatzea, guztientzako tokiak banatzea, irakas-baliabideak antolatzea eta abar. Eskolako jardueraren agirian agertzen diren datuak ez dira urteko planean errepikatu beharko.

Irakas-jardueren programan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien programazioak sartuko dira. Baita, ikasketa-proiektua egiteko plana eta helburu hau lortzeko ikasturtean zehar egingo diren ekintzak adieraziko dira.

Programa honetan, orientabide eta irakasleen aldetik ikasturtean zehar garatu behar dituen helburuak eta ekintza nagusiak adieraziko dira.

Konkretuki, ikastetxeak parte hartutako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Esperientzi eta Programak aipatuko dira, eta ikasturtean zehar ikastetxeak bultzatutako proiektuak, batez ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, edo beste Sailek eta Euskal Herriko, zein Estatuko, edo Europako Elkarteko beste erakundek onartutakoak.

**b) Prestakuntza-jarduerak, eskolaz kanpokoak eta osagarriak.**

Urteko planaren zati hau lantzea Zuzendaritza Taldeari ala Batzorde Iraunkorrari dagokio, Ordezkaritza Organo Gorenak onartu behar duelarik.

Programak bilduko ditu, behinik behin, ikastetxean egindako prestakuntza-proiektuak eta lanorduetan egingo diren eta ikastetxearen antolaketan eragin izango duten prestakuntza jarduerak.

Urteko Planean hala adierazitako jardueretan derrigorrezkoa izango da, salbuespenak salbuespen (lanaldi murrizketa, kasu bereziak…), irakasleen partehartzea, prestakuntza-jardueratarako asteko ordubeteari baitagokio. Prestakuntza jarduera hauen antolaketa egiteko, aste batzuetako ordubeteak metatu ahal izango dira saio luzeagoak eta eraginkorragoak egin ahal izateko.

Ikastetxeko 2009-2010 ikasturteko prestakuntza-ekintzak ikasturte horretako prestakuntza-proiektuekin edo berriztapen-proiektuekin bat etorrita gauzatu beharko dira. Ez da beharrezkoa izango, horrenbestez, ekintzak beste era batera gauzatzea, ez eta agirietan horri buruzko aipamenik egitea.

Ekintza osagarrien eta eskolaz kanpoko ekintzen programak ondoko hauek bilduko ditu bere baitan:

1.- Jarduera osagarriak**:** Ikasleekin ikastorduetan egiten diren ekintza didaktikoak eta, programaren barruan sartzen badira ere, izaera berezia dutela jotzen da, bai egiten diren unearengatik edo tokiarengatik edo baita ikastetxeari suposatzen dioten baliabideengatik edo eskuhartzearengatik ere. Ekintza horiek ikasle guztiei zabalduak egon behar dute. Horien artean nabarmentzekoak dira:

- barnetegiak, nekazaritza-eskolak.
- ikastetxean egindako festak,
- hezkuntza-ekimen bereziak,
- gelaz kanpoko ekintzak: ikustaldiak, landa-lanak...,
- irteerak, ikasturte amaierako bidaiak, trukeak...

2.- Eskolaz kanpoko ekintzak: Ikasleekin ikastorduetatik kanpo egin eta partehartzea borondatezkoa duten ekintzak, curriculumarekin erlazio zuzenarik gabekoak. Ekintza horien plangintza egiterakoan helburuak, arduradunak, unea eta tokia zehaztuko dira eta baita ikasleek nola parte hartuko duten ere. Ekonomi ezaugarriek edo ondorioek urteko kudeaketa-programan azaldu beharko dute.

Kontuan izan behar da ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten diren ekintzetarako guraso edo legezko tutoreen baimena beharrezkoa izango dela, Ebazpen honen beste atal batek adierazten duen moduan.

**c) Urteko kudeaketa-programa**

Ikastetxeko Kudeaketa Proiektua Urteko Kudeaketa-Programaren bidez gauzatzen da urtez urte eta aurrekontua osatzea eta onartzea da programa horren atalik garrantzitsuena. Aurrekontua osatu eta onartzeko, ikastetxeek bete behar izango dute uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan xedatutakoa (98-09-14 eta 98-09-23ko E.H.A.A.)

Urteko planaren zati hau lantzea Zuzendaritza-Taldeari ala Batzorde Iraunkorrari dagokio eta onartzea Ordezkaritza-Organo Gorenari.

Programa honetan gasturen bat eragingo duten jarduerak sartuko dira, jantokia eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak barne. Hainbat atal bereizi beharko dira: diru-sarrerak, aurrikuspenak eta gasturako irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar.

Antolaketa-baliabideek, IHPek, IIPek eta AJAek duten garrantzia eta interesa aintzat hartuta, ikastetxeek horiek eguneratzeko eta egokitzeko lanean jarraitu behar dute.

Ikastetxeek 2009-2010 ikasturterako Urteko Plana egingo dute urte hasieran, ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko baliagarria izango dena.

## 1.5.- URTEKO TXOSTENA

Memoria ekainaren azken asteetan eta irailaren lehenengo asteetan egingo da; zehazki, zuzendaritza-taldea arduratuko da egiteko hori koordinatzeaz. Ikastetxearen

Urteko Plana zenbateraino bete den aztertuz eta lortutako eskola-emaitzak aintzat hartuz, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du; hau da, ondorioak atera eta hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak egingo dituzte, eta, horrez gain, lehentasun batzuk jarriko dituzte, ikastetxearen hurrengo planean helburutzat hartuko direnak.

Urteko Memoria OOGk edo Eskola Kontseiluak onartu behar du, eta kopia bat ikastetxeko idazkaritzan jasoko da Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egoteko.

Memoria eta Ikastetxearen Urteko Plana urriaren 30a baino lehen egin eta onartu behar dira, ezinbestean.

MEMORIA eta URTEKO PLANA labur eta zehatz egingo dira, ikastetxean bertan erraz erabili ahal izateko, eta gero, idazkaritzan jasoko dituzte Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura; hau da, egiten dituen bisitaldietan egoki irizten dituen azterketak eta ebaluazioak egin ditzan.

OHARRA: Lurraldeko Ikuskaritzan Urteko Plana eta Memoria egiteko ereduak daude.

## 1.6.- ANTOLAKUNTZA- ETA JARDUERA-ARAUDIA.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, abenduaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren edo Barne Araudiaren aldaketa ezartzen du laugarren xedapen gehigarrian, eta horretarako sei hilabeteko epea finkatzen du, dekretua argitaratzen denetik hasita..

Antolakuntza- eta jarduera-araudia (AJA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako berezko dokumentua da. Agiri hori derrigorrezkoa da Euskal Eskola Publikoaren Legeko 29. artikuluak hala ezarri duelako.

Hona araudi horren gutxieneko edukia:

- Ikastetxearen antolamendurako eta funtzionamendurako egituraren definizioa.
- Arauak, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko begirunea eta bizikidetza bermatzeko eta lokal-instalazioak egoki erabiltzeko.
- Ebaluazioetan erreklamazioak egiteko araubidea.

Arestian aipatutako dekretura egokitzeko ikastetxeek AJA hori alda dezaten, Hezkuntzako Ikuskaritzak eredu orientagarri bat jarri du ikastetxe guztien eskura, baina ez da nahitaezkoa.

## 1.7.- ELKARBIZITZAREN BEHATOKIA SORTZEA ETA ELKARBIZITZA-PLANA PRESTAZEA.

Hezkuntzaren oinarrizko helburuetako bat elkarrekin bizitzen ikastea da. Elkarbizitza positiboa sustatu eta hezkuntza-komunitate osoa horretan inplika dadin, ikastetxean Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko eta Urteko Elkarbizitza-plana sortzeko eskatzen diegu oraindik egin ez dituzten ikastetxeei. Bestetik, ikastetxearen sektore guztietako ordezkariak izan beharko dute behatoki horren kide.

Proiektua aurkeztu ostean, proiektu hori gauzatzeko orduak lortu behar dituzten ikastetxeek orduok bakar-bakarrik erabiliko dituzte hezkuntza komunitatea dinamizatzeko, ikastetxean Elkarbizitzaren Behatokia sortzeko eta Urteko Elkarbizitza-plana prestatzeko. Plan horrek amaituta egon beharko du 2009-2010 ikasturtearen amaierarako, eta aurrerantzean Urteko Planean eta ikastetxearen Memorian txertatuko da.

Ikastetxeek 2009-2010 ikasturterako UEP landu badute eta Elkarbizitzaren Behatokia sortuta badute, plan horretan jasotako jarduera guztiak jarriko dituzte habian, planaren jarraipen-proiektuan azaltzen denez. Bestalde, deialdian jasotzen diren baldintzetan jarriko dira abian jarduerok.

## 1. 8.- HEZIKIDETZA.

Ikastetxeek hezikidetza integratuko dute hezkuntza-kudeaketako txostenetan (hezkuntza-proiektuan, ROFean, elkarbitzitza-planetan, tutoretza-planean, urteko planean…); ikasmaterial sexistak baztertue, eta hezikidetza-irizpideak lantzen dituzten ikasmaterialak sartuko dituzte.

Era berean, komenigarria da hezkuntza-komunitateko kide guztiei otsailaren 18ko 4/2005 Legeren III. kapituluko 1. sekzioak (Unibertsitate-irakaskuntzak) dioenaren berri ematea, eta batez ere 28, 29, 30, 31.1 eta 31.3 . artikuluetan jasotakoak 4/2005 Legea, Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako Legea).

## 1.9.- GELA EGONKORREN CURRICULUM-PROIEKTUA

Gela egonkorreko curriculum-proiektua prestatu eta onartzeko, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpidei buruzko uztailaren 30eko Aginduaren 29. artikuluak ezarritakoari jarraituko zaio (HEAA, 1998ko abuztuaren 31koa).

# 2.- IRAKASLEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK

## 2.1.- IRAKASLANAREN ANTOLAMENDUA

1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, 36 f) artikuluan arautzen duenez, zuzendaritza-taldeari dagokio irakasle-taldeak antolatzea eta, horrez gain, irakasleak beren jardueretara atxikitzeko oinarri hartuko diren irizpideak zehaztea ikasturte-hasieran. Hori egiteko, irakasgaiari dagozkion arauak kontuan hartuko ditu.

### 2.1.1.- Irakasgai eta taldeen banaketa

Espezialitate bakoitzari dagozkion irakasgai guztien orduak zenbatuko dira eta bertako irakasleei esleituko zaizkie.

Espezialitateren bateko irakasle guztiek bere ordutegiak osatu ahal badituzte bere espezialitateko irakasgaiekin, ez zaie beste espezialitateko irakasgairik esleituko.

Espezialitateren batek ezin baditu bere irakasle guztien ordutegiak espezialitateko irakasgaiekin bete, ikastetxeko zuzendaritzak osatuta ez daukaten irakasleei beste espezialitate batzuetan soberan dauden orduak esleituko dizkie. Kasu horretan, ikastetxeko zuzendaritzak erabaki egin beharko ditu irakasle bakoitzari bere ordutegia osatzeko esleituko dizkion irakasgai eta talde zehatzak.

Beste alde batetik, ahalik eta koherentzia pedagogikorik handiena izan beharko dute, bai eta errespetatu ere ikasleek kalitatezko irakaskuntza jasotzeko daukaten eskubidea. Ondorioz, beste irakasgai batzuk eman behar dituzten espezialitate bakoitzeko irakasleei bere espezialitatetik hurbilen dauden curriculumeko irakasgaiak ematen ahaleginduko da eta, horien artean, ahal den neurrian espezialitate maila gutxien behar duten taldeak.

Irakasleari berezkoak ez diren ikasgaiak esleitzean, ikastetxearen Zuzendaritzak arau hauek errespetatu beharko ditu:

- Bigarren hezkuntzako irakasleen kidego eta Lanbide Heziketako irakasle teknikarien kidegoko irakasleei bere espezialitatearenak diren ikasgaiak eman diezazkiekete, 2000ko urtarrilaren 12ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduaren (00-01-20ko EHAA) I. eranskinean jasotako kidekoak diren espezialitate zerrendaren arabera.

- Halaber, aurreko paragrafoan aipatutako kidegoen irakasleei eslei diezazkiekete bere titulazioagatik eman ditzaketen ikasgaiak, honen arabera: urtarrilaren 18ko 7/2000 Dekretuaren III. eranskinak jasotzen duen titulazioen zerrenda, berezitasun bakoitzeko ikasgai propioak ematea baimentzen duena, (00-01-21eko EHAA) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1997ko ekainaren 27ko Aginduaren III. eta IV. eranskinetan dauden titulazioen zerrendak, Batxilergoko ikasgaiak ematea baimentzen dutena, (97-07-16ko EHAA).

- Maisu-maistren kidegoko irakasleei bere lanpostuari ez dagozkion ikasgaiak eman diezazkiekete, baldin eta dagokien gaikuntza badute eta otsailaren 13ko 35/1996 Dekretuaren 4.1. artikuluan ezarritakoarekin bat (96-02-15eko EHAA).

- Halaber, maisu-maistren kidegoko irakasleei bere lanpostuari ez dagozkion ikasgaiak eman diezazkiekete, baldin eta dagokien titulazioa edota prestakuntza badute eta otsailaren 13ko 35/1996 Dekretuaren 4.2. artikuluan ezarritakoarekin bat (96-02-15eko EHAA).

Azkenik, departamentuko bertako irakasleekin edo beste departamentu batzuetan ordutegi osoak ez dituzten irakasleekin bete ezin izan diren orduekin, ikasturte hasierako esleipen prozesuan eskainiko diren lanpostuak egingo dira. Lanpostu horiek egiteko, ahalik eta koherentzia pedagogikorik handiena bilatuko da, hau da, banatutako irakasgai kopuru txikiena, horien curriculum hurbiltasuna, behar ez izatea espezializazio maila altuegia bakoitzean, ahalik eta maila kopuru txikiena, etabar.

### 2.1.2. Ikastetxearen irakasleei taldeen esleipena

Zuzendaritza-taldeak irakasle-taldeak antolatuko ditu, eta ikasturtearen hasieran erabakiko du zein irizpideren arabera atxikiko zaizkien irakasleak beren jarduerei, Urteko Plana eta araudiak irakasleei emandako espezialitateak bermatzeko eta aurreko atalan xedatutakoa betetzeko.

Talde jakin batzuei emateko irakasgai batzuk izendatzea, eta tutoretzak eta pedagogi koordinazioaren eginkizunak izendatzea funtsezkoak dira atxikipen horretan.

Taldeen esleipena egiterakoan oreka bilatzen saiatuko gara, beti ere irakaskuntzaren kalitatea delarik helburu. Edonola ere, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

1.- Euskarazko lerroak dituzten ikastetxeetan, HE2ko lanpostua duten irakasleek ezin izango dute gaztelaniazko eskolarik eman, baldin eta beren espezialitateko euskarazko

ordu guztiak beteta ez badaude. Ikastetxeko beharrak direla eta, IRALE programaren bidez edo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diruz lagundutako beste edozein ikastaroren bidez HE2 egiaztatu duten irakasleei euskarazko eskolak emateko eskatu ahal izango zaie, atxikita dagoen lanpostua HE1koa izanda ere.

2.- DBHko lehenengo eta bigarren kurtsoei atxikitako maisu-maistrek maila horretan bakarrik eman dezakete eskola, eta, gainera, maila horretantxe dute eskolak emateko lehentasuna.

3.- Ikastetxeko gainerako irakasleek eskolak bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondokoan eman ahal izango dituzte eskolak.

4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle-taldeen esleipena egitean, ikastetxeek ahaleginak egingo dituzte, antolakuntzako neurrien bidez, irakasle-talde batean parte hartzen duten irakasleen kopurua murrizten, batez ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2 kurtsoetan.

5.- Eguneko eta gaueko irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeetan, beharrezkoa baino irakasle-kopuru handiagoa txanda ezberdinetan aritu beharra saihestuko da. Edonola ere, Ikasketa-Buruek beren zeregina betetzen duten txandetan eman beharko dituzte eskolak nahitaez.

Aurreko irizpideak errespetatuz, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36.2.f eta 41.c artikuluetan xedatutakoaren arabera, Ikasketa-Buruak irakasle bakoitzari esleituko dizkio eman behar dituen kurtsoak eta taldeak, Ikastetxeko Zuzendaritza-Taldeak ezarritako irizpideak kontuan harturik. Edonola ere, Ikasketa-Buruak, irakaslegoari jakintzagaiak esleitzeari buruz indarrean dagoen legerian xedatutakoa bete beharko du.

Ikastetxeko zuzendaritza taldeak finkatu ez balitu kasuan kasuko irizpideak, ikasketaburuak jarraiako txanden sistema erabiliko du talde bat hautatu dezaten irakasle guztiek eta bakoitzak, hurrenkera honen arabera:

A) Maisu-maistrak: Maila hauen arabera ordenatuko dira:

1.- Ikastetxean behin betiko destinoa duten maisu-maistrak.

2.- Ikastetxean behin betiko destinoa ez duten maisu-maistra funtzionarioak, zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko destinoan daudenak.

3.- Bitarteko maisu-maistrak.

Maila bakoitzaren barruan, apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuaren VI. tituluan (1996ko maiatzaren 3ko EHAAn) jasotako antolamendu irizpideen arabera ordenatuko dira.

Irakasle horiek bakar-bakarrik hautatu ahal izango dituzte jarraiako txandetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren kurtsoetako talde eta

irakasgaiak. Lehentasun osoa izango dute hautatzeko beste kidego batzuetako irakasleen aurretik.

B) Bigarren Hezkuntzako irakasleak eta Lanbide Heziketako teknikariak. Honako maila hauen arabera ordenatuko dira:

1.- Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasle funtzionarioak edo Lanbide Heziketako teknikariak, ikastetxean behin betiko destinoa badute, apirilaren 16ko 86/2002 Dekretuaren 16. artikuluan (2002ko apirilaren 19ko EHAAn) jasotako baremoaren arabera ordenatuko dira, urriaren 10eko 198/2006 Dekretuaren hirugarren artikuluak (2006ko urriaren 25eko EHAAn) xedatzen dituen aldaketekin.

2.- Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoetako irakasle berezien kidegoko karrerako funtzionario irakasleak, ikastetxean behin betiko destinoa badute. Egoera horretan guztira emandako zerbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

3.- Lan-legepeko kontratudun irakasleak, ikastetxean behin betiko destinoa badute. Egoera horretan guztira emandako zerbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

4.- Bigarren Hezkuntzako kidegoetako, Lanbide Heziketako teknikari edo Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoetako irakasle bereziak, ikastetxean behin betiko destinoa ez badute, ikasturte honetan zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko destinoan badaude. Kasuan kasuko kidegoko karrerako funtzionario gisa emandako zerbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

5.- Lan-legepeko kontratudun irakasleak, ikastetxean behin betiko destinoa ez badute. Emandako zerbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

6.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko lanpostuetan zerbitzu-eginkizunetan dauden maisu-maistren kidegoko irakasleak. Egoera horretan emandako zerbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

7.- Lan-legepeko kontratudun bitarteko irakasleak. Egoera horretan emandako zerbitzuen denboraren arabera ordenatuko dira.

Sailkapen horren arabera behin ordenatuz gero, irakasle bakoitzak txanda bakoitzean bere espezialitate, titulazio eta hizkuntz eskakizun egiaztatuaren arabera emateko gaitasuna duen talde bat hautatuko du, betiere honako murrizpen hauek gordez:

a) Bakar-bakarrik hautatu ahal izango dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren kurtsoetako taldeak, maisu-maistrek taldeak erabat hautatutakoan hutsik geratu direnak.

b) Bakar-bakarrik hautatu ahal izango dute talde bat, hautatzen duen irakaslearen lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokion bestelako hizkuntzan ematen dena, bere espezialitate eta hizkuntza-eskakizunaren talderik geratzen ez bada.

Sailen batean irakasle batzuk ez baleude hautaketa egiteko momentuan, ikasketaburuak hautatuko du bere izenean.

Gau eta eguneko irakaskuntza ematen duten ikastetxeetan, hautaketa txanden bidez lortuko balitz hautatzea kurtsoak eta orduak banatzea, beharrezko ez den neurrian ahalik eta irakasle gutxien banatu ahal izateko txanda desberdinetan, lehenengo txanda egin ahal izango da, kurtsoak hautatu aurretik, lehentasuna aukeratuta eguneko edo gaueko irakaskuntzena, arestian finkatutako sailkapenaren arabera.

### 2.1.3. Irakaslegoaren ordutegia egiteko modua

Irakasle bakoitzari dagozkion taldeak esleitu eta behin, Ikasketa-Buruak landuko ditu ordutegiak, Klaustroak ezarritako irizpide pedagogikoen arabera. Irizpide hauek ikastetxeko Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegian jasota egon beharko dute.

Ordutegiak finkatzerakoan, ahal dela eta lehen aipatu diren irizpideak ukatzen ez diren bitartean, txanda ezberdinetan (goizez, arratsaldez, gauez), ikastetxe edota eraikin ezberdinetan, eskola-emankizunak bete beharko dituzten irakasleak hartuko dira kontuan, egoera horrek ahalik eta eragozpen gutxien sor diezaien.

Ordutegia ezingo da aldatu irakasleen geroagoko lehentasunak direla eta.

### 2.1.4. Ikastetxeko ordutegiaren onespen eta ageritasuna

Ikasketa-Buruak eginiko eta Zuzendariak onartutako ordutegia bete behar du irakasleak. Hari buruzko edozein erreklamazio Hezkuntza Lurralde Ordezkariak erabakiko du, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena eman ondoren.

Une guztietan ikastetxearen egoera jasotzen duen lauki argi eta ulergarri bat agerian eta etenik gabe egongo da irakasleen gelako iragarki taulan, Ikasketa-Buruaren bulegoan eta ikastetxeko estamentu guztien eskura izango den beste leku batean. Halaber, Zuzendaritzako partaide bakoitza ikastetxean dagoeneko ordutegia ere agertuko da.

Informazio hori guztia Ordezkaritza-Organo Gorenaren edozein partaidek eskuratu ahal izango du.

## 2.2.- ASTEKO JARDUNALDIA

### 2.2.1. Ohiko jarduera duten irakasleak

- Herri-Jardunaren Erreformarako Neurrien, 1984ko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean oinarrituz, jarduera-arau bakarra onartzen da orokorki gainontzeko herri-funtzionarioentzat ezarri dena bezalakoa.

- Jarduera honetatik, astean 30 ordu ikastetxeari eskainiko zaizkio zuzenki. **Irakasleak astean ohiko egonaldian 23 ordu egon beharko du ikastetxean; horietatik batez-beste 17 irakastorduak izango dira**. Ezein irakasleri ez zaizkio 18 irakastordu baino gehiago ezarriko. Irakaslearen ordutegiak 18 irakastordu dituenean, soberako ordua zaintza-ordutegitik kenduko zaio, halako moldez non ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko orduak 23 izango diren. Era berean, edozein gorabehera dela eta, irakaslearen ordutegiak 17 irakastordu baino gutxiago baditu, Zuzendariak zaintza-ordutegia gehitu, edota beste jarduera batzuk esleituko dizkio, kasu guztietan bete daitezen ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko 23 orduak.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleen eskola-ordutegian azaltzen diren tutoretza-orduak, ematen dituen irakaslearen irakastordu gisa kontabilizatuko dira. (Batxilergoko kurtsoen tutoreek, bakarrik, Ebazpen honen 2.8.5. puntuan esijitzen diren baldintzak betetzen badituzte).

- Ohiko jardueraz estaltzen ez diren irakastorduak heziketa-errefortzura bideratuko dira. Heziketa-errefortzua neurri-multzoa da. Hezkuntza-neurriak dira, norbanakoentzakoak edo taldearentzakoak. Neurri horiek irakaslegoak berak diseinatuak dira, ikaslegoari laguntzeko ohiko eskola-zailtasunetan. Ikastetxe bakoitzak ezarri beharko du bertako Hezkuntzako Errefortzuko Plana, eta bertan jasoko dira egokien ikusten diren ekintza eta estrategiak.

- Heziketa-Zikloen sekuentziazio modular egoki eta koherentea lortzeko xedez, maila honetan eskolak ematen dituen irakaslegoak, ikasturteko aldi jakin batzuetan, astean gehienez 25 eskola-orduko ordutegia eduki ahal izango du, beti ere, aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz urtean gertatzen den guztizko irakastordu-kopurua erreferentziatzat hartuta. Ezin gaindituko dira, inola ere, astean 25 ordu eskolak ematen.

- **Irakastorduak izan gabe, ikastetxean ohiko egonaldian egon beharreko orduak honela banatuko dira:**

**a) Ikasle-talderen baten tutoreak**

- **Astean ordubete, ikasleen gurasoei laguntzeko** eta beren ikasleekiko zuzeneko tutoretzakoak ez diren tutoretza-lanak egiteko, besteak beste, tutoretzarekin zerikusia duten administrazio-lanak egitea, tutoreen arteko koordinazio-bilerak egitea, orientazio-jarduera bereziak, etab.

- **Astean hiru ordu, zaintzak egiteko**.

Ordu horiek gehitu edo gutxitu egingo dira, beharrezko kopuruan, irakasle guztiek izan ditzaten ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko 23 orduak, 2.1.1 atal honetako bigarren paragrafoan ezarri denaren arabera.

Beste aldetik, DBHko ikasleen jolasgaraiko zaintza, 30 minutu edo gehiago irauten duena (15 minutuko edo gehiagoko bi zatiz osaturik egon daiteke), zaintzako ohiko ordutzat hartuko da.

- **Astean ordubete, sail didaktikoaren bilerak** edo pedagogi koordinazioko beste bilera batzuk **egiteko**.

- **Astean ordubete prestakuntza-jardueretara zuzendurik**, Ebazpen honen 5. Atalburuan irakaslegoaren prestakuntzari buruz adierazitako irizpideen arabera antolatuko dena.

**b) Beste kargu batzuk dituzten irakasleak**

- **Astean ordubete, ikasleen gurasoei laguntzeko** eta karguari dagozkion lanak egiteko.

- **Astean hiru ordu, zaintzak egiteko**.

Ordu horiek gehitu edo gutxitu egingo dira, beharrezko kopuruan, irakasle guztiek izan ditzaten ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko 23 orduak, 2.1.1 atal honetako bigarren paragrafoan ezarri denaren arabera.

Beste aldetik, DBHko ikasleen jolasgaraiko zaintza, 30 minutu edo gehiago irauten duena (15 minutuko edo gehiagoko bi zatiz osaturik egon daiteke), zaintzako ohiko ordutzat hartuko da.

- **Astean ordubete, sail didaktikoaren bilerak** edo pedagogi koordinazioko beste bilera batzuk **egiteko**.

- **Astean ordubete prestakuntza-jardueretara zuzendurik**, Ebazpen honen 5. Atalburuan irakaslegoaren prestakuntzari buruz adierazitako irizpideen arabera antolatuko dena.

- Ikastetxeari astean zuzenean eman behar zaizkion gainerako zazpi orduak hilean zenbatuko dira eta honako hauetarako erabiliko dira: Tutoretzako Ekintza Planaren garapenerako, sailaren jarduerak gehitzeko, bilerak egiteko organo kolegiatuekin, ebaluazio batzordeak, ikastetxeko plangintza eta antolamendu tresnak egin, koordinazio bilerak talde edo kurtsoko irakasleekin, Hizkuntz Normalkuntzako Batzordeari dagozkion egiteko batzuk eta eskolaz kanpoko jarduera osagarriak egiteko.

- Ikastetxeari zuzenki eskaintzen ez zaion ordutegian ekintza hauetarako izango dira: irakaskuntzako irakastekintza lektiboen prestaketa, azterketak zuzentzea,

irakaslearen hobekuntza profesionala, eta orokorki, irakaskuntzari lotzen zaizkion eginkizun eta betebeharrak.

### 2.2.2.- Jardun murriztua duten irakasleak

Lana eta familia-bizitza bateratzeko lanaldia murriztea eskatzen denean, ikastetxeetako zuzendariek ahal duten guztia egingo dute interesdunaren ordutegiak lana eta familia-bizitza batera ditzan.

#### a) Jardunaren 1/2 murriztea

Lan-jardunaren 1/2 murrizten den kasuetan, Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean **15 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko**. Dedikazio horretatik, **astean 11 ordu ikastetxean eman beharko dituzte**, honela banaturik:

- **Astean 8 ordu gutxienez eskolak ematen**. Beharrezkoa izanez gero, eskolak 9 orduz eman ahal izango dituzte, gehienez ere. Eskola-orduak ordubetez luzatzen direnean, gehikuntza hori orekatzeko jagoletza-ordua kendu egingo da.

- **Astean ordu 1 ikasleen gurasoei arreta emateko.**

- **Astean ordu 1 jagoletza egiteko.**

- **Astean ordu 1 didaktika-saileko bileretarako**.

Astean zuzenean ikastetxeari dedikatu beharreko beste 4 orduak hilero kontabilizatuko dira eta jarduera hauek egiteko erabiliko dira: Tutoretzako Ekintza Planaren garapenerako, sailaren jarduerak areagotzeko, Taldeko Organoen bilerak egiteko, Ebaluazio-batzordeetarako, ikastetxearen plangintza eta antolamenduko tresnak eratzeko, taldeko edo ikasturteko irakasleen koordinazio-bileretarako eta, halaber, bestelako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko.

Gainerako orduak, zuzenean ikastetxeari dedikatu behar ez zaizkionak, irakaslanak prestatzeko, azterketak zuzentzeko, irakasleen prestakuntza hobetzeko eta irakaskuntzarekin lotutako bestelako gaietarako erabiliko dira.

#### b) Jardunaren 1/3 murriztea

Lan-jardunaren 1/3 murrizten den kasuetan, Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean **20 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko**. Dedikazio horretatik, **astean 15 ordu ikastetxean eman beharko dituzte**, honela banaturik:

**- Astean 11 ordu gutxienez eskolak ematen**. Beharrezkoa izanez gero, eskolak 12 orduz eman ahal izango dituzte gehienez. Eskola-orduak ordubetez luzatzen direnean, gehikuntza hori orekatzeko jagoletza-orduak ordubetez murriztuko dira.

- **Astean ordu 1 ikasleen gurasoei arreta emateko.**

- **Astean 2 ordu jagoletza egiteko.**

- **Astean ordu 1 didaktika-saileko bileretarako**.

Astean zuzenean ikastetxeari dedikatu beharreko beste 5 orduak hilero kontabilizatuko dira eta jarduera hauek egiteko erabiliko dira: Tutoretzako Ekintza Planaren garapenerako, sailaren jarduerak areagotzeko, Taldeko Organoen bilerak egiteko, Ebaluazio-batzordeetarako, ikastetxearen plangintza eta antolamenduko tresnak eratzeko, taldeko edo ikasturteko irakasleen koordinazio-bileretarako eta, halaber, bestelako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko.

Gainerako orduak, zuzenean ikastetxeari dedikatu behar ez zaizkionak, irakaslanak prestatzeko, azterketak zuzentzeko, irakasleen prestakuntza hobetzeko eta irakaskuntzarekin lotutako bestelako gaietarako erabiliko dira.

Beste aldetik, lan-jardunaren gainerako herena ematen duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek astean 1**0 orduko jarduna izango dute zuzenean ikastetxeari dedikatzeko**. Dedikazio horretatik, **astean 8 ordu ikastetxean eman beharko dituzte**, honela banaturik:

**- Astean 6 ordu eskolak ematen**.

- **Astean ordu 1 ikasleen gurasoei arreta emateko.**

- **Astean ordu 1 jagoletza egiteko.**

Astean zuzenean ikastetxeari dedikatu beharreko beste 2 orduak hilero kontabilizatuko dira eta jarduera hauek egiteko erabiliko dira: Tutoretzako Ekintza Planaren garapenerako, sailaren jarduerak areagotzeko, Taldeko Organoen bilerak egiteko, Ebaluazio-batzordeetarako, ikastetxearen plangintza eta antolamenduko tresnak eratzeko, taldeko edo ikasturteko irakasleen koordinazio-bileretarako eta, halaber, bestelako ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko.

Gainerako orduak, zuzenean ikastetxeari dedikatu behar ez zaizkionak, irakaslanak prestatzeko, azterketak zuzentzeko, irakasleen prestakuntza hobetzeko eta irakaskuntzarekin lotutako bestelako gaietarako erabiliko dira.

Atal honetan aurreikusitako kasuetatik edozeinetan, zernahi gorabehera dela eta, irakaslearen irakastorduen kopurua gehitu edo gutxituz gero, aldea edo diferentzia konpentsatu egingo da, zaintza-orduak gutxituz edo gehituz, dagokionaren arabera, edo beste jarduera batzuk esleituz, halako moldez non ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko orduen guztizko batura kasu bakoitzean ezarritakoarekin bat etorriko den.

### 2.2.3. Araudi orokorraren salbuespenak

- Zuzendaritza-karguak dituzten irakasleek zaintza-orduen ordez beren karguko lanei eskainitako orduak hartu ahal izango dituzte, baldin eta hori egiteko biderik badago eta zaintza-ordu guztiak beteta badaude.

- Sail didaktikoren bateko irakasleek beste sail bateko irakasgairik ematen badute, zaintza-orduetako bat kendu ahal izango dute, eta haren ordez, bigarren saileko bilera-ordu bat ezarri, zuzendariaren baimena jasoz gero.

- Irakasleren batek astean 17 irakastordu baino gehiago eman behar badu, 17 orduetatik gora egin behar dituen orduak kendu egingo zaizkio bere zaintzako orduetatik.

- Zuzendariak irakasleren bati jarduera bereziak ezarri ahal izango dizkio zaintza-orduen lekuan, baldin eta hori egiteko biderik badago eta zaintza-ordu guztiak beteta badaude.

- Zerbitzu-beharrak direla eta, irakasle batek tutoretza bat eta beste kargu bat hartu baditu bere gain, bigarren kargu horri eskaintzeko orduak zaintza-orduetatik kenduko dira, baldin eta hori egiteko biderik badago eta zaintza-ordu guztiak beteta badaude.

- Gorago aipatutako salbuespen-egoerak ezin izango dira onetsi, baldin eta horrek baldin badakar beste irakasleren batek dagozkion zaintza-orduetatik gora egin beharra.

- Ikasleak ikastetxean dauden bitartean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen jolasgaraietan barne, gutxienez zaintzako irakasle batek egon behar du ikastetxean. Horretarako, beharrezkoa izanez gero, zuzendariak irakasleen zaintza-orduen kopurua handitu ahal izango luke. Era berean, zaintzei arreta berezia eskaini behar bazaie, ikastetxeko zuzendariak, behar den neurrian, irakasleen zaintza-orduak areagotu ahal izango ditu.

- Irakasle batek gutxienezko irakastorduen kopurua betetzen ez duenean, zerbitzu-beharrak hala eskatzen badu beste ikastetxe batean osatuko du ordutegia. Kasu horretan, hori kontuan izango da ordutegiak osatzeko orduan, irakasle horrek egun berean ikastetxe batean baino gehiagotan eskolarik ez duela eman behar gogoan izanda, eta hori ezin bada, joan-etorriak egiteko erabilitako denbora zaintza-orduetatik eta ikastetxean eman beharrezko ohiko orduetatik kenduko da.

### 2.2.4. Irakasleen ordutegia

- Irakasleak, dagokion inprimakian, Ebazpen honetako norabideen arauera, bere 30 orduko asteko ordutegia idatziko du.

- Irakasle bakoitzak ikastetxean egon ohi diren 23 orduak (15, 11 eta 8 ordu, hurrenez hurren, jardunaldiaren 2/3, 1/2 eta 1/3 ematen duten irakasleentzat), asteko egun guztietan banatuko dira, egunero ikastetxean gutxienez bi ordu egonik, astelehenetik ostiralera, jardunaldi osoa daukaten irakasleentzat, eta egunero ikastetxean gutxienez bi ordu egonik gutxienez lau, hiru eta bi egunetan astean, hurrenez hurren, jardunaldiaren 2/3, 1/2 eta 1/3 ematen duten irakasleentzat. D.B.H. edo Batxilergoa ematen duten irakasleek egunean 5 ordu eman ahal izango dituzte gehienez eta Heziketa-Zikloak ematen dituztenek, egunean 6 orduko eskolak gehienez.

- LOGSEk ezarritako Heziketa-zikloetan, lantokietan egiten diren praktikaldietan, horietako irakasle-tutoreek Lantokiko Prestakuntza moduluaren kudeaketa eta tutoretzarako emango duten denbora honako hau izango da: 2000ko urtarrilaren 12ko Aginduak (EHAA, 2000-01-20) bere VII. eranskinean dakarren LP/FCT zutabean ziklo eta espezialitate bakoitzarentzako zehaztu den ordu-kopurua. **Orduok, ondorio guztietarako, eskola-ordutzat hartuko dira**, eta hilero-hilero eta behar den aurretiaz, ikasketa-buruari aurkeztuko zaio ordutegi horretan egin beharreko bisitaldien eta bestelako eginkizunen plana. **Nolanahi ere, irakasle bakoitzaren guztizko irakastordu kopurua, Lantokiko Prestakuntza moduluari ematen zaizkion orduak barne dituela, honako hau izango da: Ebazpen honen 2.2.1. eta 2.2.2. atalek xedatu dutena aplikatuz egokitzen dena.**

### 2.2.5.- Gorputz Hezkuntza, Musika edo Plastika eta Ikus-Hezkuntzako irakasleak

- Gorputz Hezkuntza, Musika nahiz Plastika eta Ikus-Hezkuntzako irakasleen zaintzako eta tutoretzako orduak aldatu ahal izango dira, ikastetxeko zaintzako tutoreen eta irakasleen ordutegiak horretarako biderik ematen badu, eta aldaketa horren eraginik jasotzen duten irakasleek berariazko onespena ematen badute. Ordu horietan irakasorduetatik kanpoko irakasgaiekin zerikusia duten eskolaz kanpoko ekintzak egin ahal izango dira. Horretarako, ahal delarik, irakasle horiek ez dira inongo ikasle-taldetako tutore izango, eta beren zaintzak egin gabe utzi ahal izango dituzte, baldin eta zaintza-ordu guztiak beteta geratzen badira, eta zaintzak ez egite horren ondorioz, ikastetxeko irakasleren batek astean hiru zaintza-ordu baino gehiago egin behar ez baditu.

### 2.2.6. Erlijioko irakasleak

- **Ikastetxe guztietan nahitaez eskaini behar da Erlijio ikasgaia.** Gai horretako irakasleek gai horri dagozkion orduak emango dituzte eta, beharrezkoa bada, beste irakaskuntza-jarduera batzuekin osatuko dute ordutegia.

- Bestelako irakasleekin gertatzen den moduan, DBHko eta Batxilergoko edozein kurtsotan ikastetxeko zuzendaritzak Erlijioko irakasleei esleituko dizkien tutoretza-orduak irakastorduak izango dira. Halaber, irakastorduak izango dira ikastetxeko Erlijioko irakasleei emango zaizkienak ondorengo arrazoiengatik: zuzendaritza-

karguengatikako murrizketak, orduak kentzen zaizkien 60 urtetik gorako irakasleak, kalitate-proiektuak, hizkuntza normalkuntzarako proiektuak, programa europarrak eta Ikastetxeen Zuzendaritzak edo Lanbide Heziketako Zuzendaritzak baimendu dituzten beste murrizketa batzuk, baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko lan-kontratuko Erlijioko irakasleentzako hitzarmen kolektiboan zehaztutakoa betetzearen ondorioz suerta daitezkeen beste batzuk.

- Ikastetxeen beharrak bete eta gero, erlijioko irakasleren bati 17 irakastordu betetzeko hiru ordu edo gutxiago faltatzen bazaio, ikastetxearen Zuzendaritzak esleituko dizkion zaintzako orduekin edo beste jarduerekin bete behar izango ditu ordutegia.

-Erlijioko irakaslea ikastetxearen klaustroko kidea da ondorio guztietarako eta gainontzeko irakasleen eskubide eta betebeharrak ditu, indarrean dagoen araudi eta legedietan ezarritako salbuespenak eta kontratuko egoera berezietatik ondorioztatzen direnak izan ezik.

### 2.2.7. Eskola-orduen heren bateko murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak direla eta eskola-orduen heren bateko murrizketa lortu duten irakasleek eta 60 urte baino gehiago duten edo urte honetan 60 urte betetzen dituzten irakasle guztiek, (**baldin eta 2009ko irailaren 1ean 65 urte ez badituzte,** edo 65 urte beteta izan arren, erretiroa hartzeko eskubidea kausatzeko beharrezko gabezia-aldia estalita ez badute), irakasletza zuzeneko jarduna astean 6 ordutan murriztu ahal izango dute. Murrizketa hori borondatezkoa da eta ez du esan nahi ikastetxean egon beharreko ordutegia murriztuko denik.

Irakasleek murrizketa-ordu horiek ikastetxearen mesedetarako erabili beharko dituzte; hau da, liburutegia zaintzen, ekintza osagarri eta eskolaz kanpokoen antolakuntzan esku hartzen, zaintzak egiten eta ikastetxeko Zuzendaritzak eman ahal izango dien antzeko zereginetan parte hartzen. Ekintza hauetan ematen dituen orduak irakaslearen ordutegian jaso egingo dira.

### 2.2.8. Zerbitzu Didaktikoen ardura ( Liburutegia, Ikus-entzunezkoak eta abar)

- Ikastetxeren batean irakasleren batek Serbitzu hauen ardura besterik ez duenean, irakasle horren asteko ordutegia 30 ordukoa izango da, osasunari buruzko arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunean dauden irakasleen kasutan izan ezik. Kasu hauetan iralasle hauen asteko ordutegia 23 ordukoa izango da.

- Aldiz, Serbitzu hauen arduraz gain klaseak ere ematen dituen irakasleak 17 irakastorduak betetzeko falta zaion ordu bakoitzeko bi ordu erabiliko ditu Serbitzu hauetan. Era honetara ikastetxean egin behar dituenak 23 ordu eta 17 irakastorduak betetzeko falta zaizkion orduak dira, beti ere 30 ordu muga izanik. 60 urte baino gehiago daukaten irakasleen sei orduko murrizketari ez zaio aplikatuko arautegi hau.

- Zuzendariak finkatuko ditu liburutegia ireki eta ixteko orduak, zerbitzu honetan dihardutenen lan-eskubideak errespetatuz.

- Ikastetxearen antolamenduak horretarako aukera ematen duen bitartean, gainerako zerbitzuak behar beste beteko direla ziurtatu ondoren, Ikastetxeko Zuzendaritzak gainerako irakasleen ordu batzuk ezarri ahal izango ditu horretarako eta ordu horiek jagoletza orduetan konpentsatuko dira.

### 2.2.9.- Hizkuntz Normalkuntza

Hizkuntz Normalkuntzako ULIBARRI Programan sartuta dauden ikastetxeen kasuan, Hizkuntz Normalkuntzako Arduradun Teknikoak eginkizun horretarako behar dituen orduak izango ditu, 2009-2010 ikasturterako Hizkuntz Normalkuntzako Proiektuen jarraipena ebazten duen Hezkuntza sailburuordearen Ebazpenean ezartzen diren zehaztasunekin.

## 2.3. ZUZENDARITZAKO ETA GAINERAKO KARGUAK

### 2.3.1. Zuzendaritza-taldea eta gainerako karguak

- Euskal Eskola Publikoaren Legearen 36 atalean xedatutakoaren arabera, Zuzendariak, Ikasketa-Buruak eta Idazkariak osatuko dute Zuzendaritza-taldea. Horretaz gain, ikastetxe bakoitzeko egoeraren arabera, honako kargu hauek ere izan daitezke:

- Ebazpen honen 2.3.4 azpiatalean xedatutakoaren arabera murrizketa-ordu guztira kalkulatu ondoren, behar duten hainbeste ordu izan dezaten ikastetxeek, Zuzendari Albokoa, Ikasketa-Buru Albokoa eta Idazkari Albokoa izendatu ditzakete.

- Gaueko Ikasketa-Burua, gauez ematen diren ikastetxeetan.

- D.B.H.ko Koordinatzailea, D.B.H. ematen diren ikastetxeetan.

- Irakasle Ordezkaria, ikastetxeetik kanpoko gelategian ematen diren ikastetxeetan.

- Lanbide Heziketa eta Lantegietako Prestakuntzako Koordinatzailea, eta Lanbide Heziketa Ez-Arautuaren Arduraduna, Berariazko Lanbide-Heziketa ematen diren ikastetxeetan.

- ISO 9000ko Kalitarearen ziurtagiria daukaten Ikastetxeetan, Kalitatearen Arduraduna.

- Mantenimendu eta Lanetako Arduraduna, eta Kudeaketa Ekonomikoaren Arduraduna, Goi-Mailako Lanbide Heziketako Berariazko Instituetan.

- A.J.A.n jarritako irizpideen arabera ikastetxeek beste koordinazio karguak ezarri ahal izango dute (Prestakuntzako Koordinatzailea, Berriztapen edo Esperientzien Priektuetarako Koordinatzailea, Baliabide Didaktikoen Arduraduna...). Irakasle hauen ordutegi murrizpenak ikastetxeari erabilgarri geratzen zaizkion orduak kontuan harturik erabakiko dira.

**2.3.2. Irakasle Ordezkaria**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskola-esparrutik kanpoko gelategian ematen diren ikastetxeetan, Irakasle Ordezkari bat egongo da, honako eginkizun hauek izango dituena:

a) Gelategiko funtzionamendua zuzendu eta koordinatu, beti ere ikastetxeko zuzendariaren esanei jarraiki.

b) Arauak, erabakiak, proiektuak, jarduketa-programak eta gelategiko jardunari eragiten dioten itunak betearazi.

c) Zuzendariaren eskuordez, gelategiko langileen buru aritzea, langile horien jarduerari dagokionez, ikastetxeko zuzendariak arlo horretan dituen eskurantzak errespetatuz, eta beti ere haren esanei jarraiki.

d) Gelategiko irakasleen akademi ordutegia betetzen dela zaintzea.

e) Gelategiko instalazioak, altzariak eta ikasmateriala zaintzea.

f) Ikastetxeko zuzendariaren ordez aritzea bai gelategiko ikasleekiko harremanetan bai ikasleen gurasoekikoetan.

g) Gelategia haur hezkuntzako edo lehen hezkuntzako ikastetxe batean egonez gero, ikastetxe horretako zuzendaritza-taldearekin batera gelategiko ekintzak eta jarduera koordinatzea.

h) Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudiak ematen dieten beste edozein eginkizun eta ikastetxeko zuzendariak ematen dizkienak.

**2.3.3.- D.B.H.ko Koordinatzailea**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, zuzendariak etapa horretako irakasle bat izendatuko du D.B.Hko Kordinatzaile gisa aritzeko.
Irakasle honek ondoko zereginak eta erantzukizunak izango ditu eta Ikasketa-Buruaren zuzendaritza eta ikuskaritzapean beteko ditu:

- DBHko kurtsoen eta horietako irakaslegoaren pedagogia-koordinazioa.

- Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta honek adskribaturik dituen Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta lankidetza, bi hezkuntza-maila horietako Curriculum-Proiektuen arteko koordinazioa ziurtatzeko.

- Ikastetxearen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek egingo dituzten Batxilergoko edo Maila Ertaineko Heziketa-Zikloetako ikasketak emango dituzten

irakasle-taldeen arteko komunikazioa eta lankidetza, nahiz ikastetxean bertan nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko beste ikastetxe batzuetan.

### 2.3.4. Zuzendaritzako eta gainerako karguei murrizketak kalkulatzeko arauak

a) Ikastetxeko ikasle ofizialen kopurua. Aurreikusitako tarteak hauek dira:

| | |
|---|---|
| - 350 baino gutxiago | 27 orduko murrizketa |
| - 350 eta 750 bitartean | 33 orduko murrizketa |
| - 751 eta 1.000 bitartean | 39 orduko murrizketa |
| - 1.000 baino gehiago | 42 orduko murrizketa |

b) Gaueko ordutegian klaseak ematen dituzten ikastetxeek beste 6 orduko murrizketa kontatuko dute.

c) Aldi berean DBH eta DBHO ematen dituzten ikastetxeek beste 6 orduko murrizketa kontatuko dute.

d) Batxilergo-mota bi edo hiru ematen dituzten ikastetxeek beste 6 edo 9 orduko murrizketa, hurrenez hurren, kontatuko dute.

e) Prestakuntza-zikloak ematen dituzten ikastetxeek zikloko beste 3 orduko murrizketa kontatuko dute (18 ordu gehienez ere).

f) Eraikin bat baino gehiagotan dauden ikastetxeek, eraikinak eskola-esparru desberdinetan egonez gero, beste 9 orduko murrizketa kontatuko dute.

g) Mantenimendu eta Lanetako Arduraduna daukaten ikastetxeek beste 3 orduko murrizketa emango diote irudi horri.

### 2.3.5. Murrizketa-orduen aplikazioa

Zuzendaritzako eta gainerako karguentzako murrizketak, guztira, aurreko atal guztietako murrizketen batuketa izango da.

Ikastetxeek Zuzendari, Ikasketa-Buru, Idazkari eta gainerako karguen artean banatuko dute ordu-kopuru osoa, beti ere ondorengo irizpideak betez:

1. Zuzendari, Ikasketa-Buru, Idazkari, Irakasle Ordezkari, eta DBHko Koordinatzaileentzako gutxieneko murrizketa honakoa izango da:

Zuzendaria ....................... 9 ordu
Ikasketa-Burua ................... 6 ordu
Idazkaria .......................... 6 ordu
Irakasle Ordezkaria ............. 6 ordu
DBHko Koordinatzailea ........ 3 ordu

2. Kargu titularraren ordu-murrizketa beti izango da kargu-albokoarena baino handiagoa.

3. Kargu-albokoaren berariazko osagarria jasotzeko, gutxienez 9 orduko murrizketa izan beharko da.

Finkatutako zenbatekoak errespetatuz, zuzendaritza-taldeak, indarrean dagoen araudiarekin bat, kargu bakoitzaren ordu-murrizketa erabakiko du, ikastetxeari dagozkion orduak amaitu arte.

### 2.3.6. Zuzendaritzakoen ordutegia

- Zuzendaritzako partaide batek behintzat ikastetxean egon behar du bertan klaseak ematen diren ordu guztietan, eta hala agertu behar du ordutegian.

- Hiru Lurralde Historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariek aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.

## 2.4. IRAKASLEEN BERTARATZEA

### 2.4.1. Lanorduak betetzeko kontrola

Irakasleek ordutegi lektiboa nahiz ez-lektiboa bete behar dute. Honetarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak dagozkion kontrol-mekanismoak erabili ahalko ditu.

Inolako justifikaziorik gabe ordutegia betetzen ez bada, zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzari jakinarazi beharko zaio, eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean araututakoari jarraiki, dagokion kopurua soldatatik kendu ahal izango da, izan dezakeen diziplina-erantzukizunean eragin gabe.

Era berean, greba egiten bada, ikastetxeko zuzendaritzak greba horrek izan duen eraginari buruzko datuak emango dizkio zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzari, eta, horrez gain, haurrei ahalik eta arreta egokiena emateko antolaketa prestatuko du, eskura dituen giza baliabideekin.

Bestalde, irakasle batek esleitu zaion sarrera- eta irteera-ordutegia (lektiboa nahiz ez-lektiboa) ez duela betetzen ikusten bada, zuendariak behar bezala bete dezan eskatuko dio. Arau-hauste horrekin jarraitzen duela ikusiz gero, ondorioak hileroko soldatan nabarituko dira; baina, horrez gain, lurralde-ordezkaritzako langileen atalari eta Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaie, beharrezko diren neurriak har ditzaten.

### 2.4.2. Bertaratze-agiriak

Hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen, ikastetxeetako zuzendariek aurreko hileko bertaratze-agiriak bidali beharko dituzte Ikuskaritzako zonalde burutzara. Irakasleek greba egiten dutenean, aipatutako bertaratze-agiriaz gain, greba egin duten langileen izenen zerrenda bidali beharko da grebaren biharamunean.

Ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-agiriak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinarazitako jarraibideak jarraituz. Aplikazio bera erabiliko da greben gorabeherak jakinarazteko eta greba egin duten langileen izen-abizenen zerrenda prestatzeko.

Hileroko agiriak irakasle guztien bertaratze-agiriak izango dira, eta betetzeko honako argibide hauek hartuko dira kontuan:

· Ezingo da bete gabe utzi "hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartea; hala utziz gero, hutsa arrazoirik gabekotzat hartuko da.

· Hutsegite guztiak aipatu behar dira, inongo salbuespenik gabe.

· "Hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartean "norberaren eginbeharrak" Hezkuntza Lurralde Ordezkariak irakasleari dagokion lizentzia eman badio bakarrik jarri ahal izango da.

· Ordutegi lektiboan egindako kanpo-ekintzak ez dira hutsegiteak izango, beraz, ez dira laburpenean hutsegite bezala azalduko.

· Irakasleek behar bezala aurkeztu beharko dizkiote hutsegitearen arrazoitze-agiriak Zuzendariari, honek noiz eskatu zain egon gabe. IRALE edo antzeko ikastaroak egiten ikastetxeaz kanpo dabiltzan irakasleek ikastaroa egiten ari diren lekuan bertan aurkeztu beharko dituzte egindako hutsegiteak arrazoitzeko agiriak.

· Bertaratze-agiriaren aldakia jendaurrean jarriko da irakasleen gelan, hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen. Beste kopia bat Ordezkaritza-Organo Gorenaren esku utziko da. Kopia hauetan, "Hutsegitearen arrazoia" azaltzeko tartea bete gabe geratuko da. Hutsa justifikatuta ala arrazoirik gabekoa den besterik ez da azalduko.

- Aldi lektiboetan irakasleak falta badira, egoera horri aurre egin eta ikasleei arreta egokia emateko ikastetxean prestatu den prozeduraren berri eman beharko zaio OOGri.

- Eskolak betiko moduan ematearen aurkako edozein gorabehera berehala jakinarazi behar zaio telefonoz Ikuskaritzari, bertaratze-agirian jasota geratuko bada ere.

- Ikastetxean ez egotea (edo lan ordutegia ez betetzea) Euskal Autonomi Elkarteko Unibertsitatekoa ez den Irakaslego Publikoarentzako Akordioaren (E.H.A.A. 2007-10-31) 34. atalean agertzen diren bestelako arrazoiengatik gertatzen baldin bada, arrazoiak ikastetxeko Zuzendariaren aurrean egiaztatuko dira, zeinek, bidezkoa joz gero, hutsegitea justifikatzeari ekingo dion.

- Bertaratze-agiriekin batera ez da hutsegiteen ziurtagirik bidaliko. Horiek ikastetxean artxibatu eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Frogagirietan hutsegitearen eguna, ordua eta arrazoia zehaztu beharko dira. Orijinalak eta argiak izan beharko dute.

## 2.5.- SAILAK

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan bi motako Sailak eratu ahal izango dira: sail didaktikoak eta sail ez-didaktikoak, hala nola Orientabide-Saila eta ikastetxeak, bertako irakasleen antolaketa eta koordinazio pedagogikoa gauzatzeko, egoki irizten dion beste edozein.

Koordinazio didaktikoaren sailak dagozkien irakasgaien edo moduluen irakaskuntza bereziak antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen diren organoak dira. Hau da, arduradun edo buru baten zuzendaritzapean, irakasgai bera irakasten duten irakasleen arteko nahiz antzeko irakasgaiak ematen dituzten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea dute xede; horregatik, talde horien zeregina eta egiten duten lana hori osatzen duten kide guztien ardura da.

### 2.5.1. Sailak eratzea

**A) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik ematen duten ikastetxeetan:**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza soilik ematen duten ikastetxeetan, irakasleen klaustroaren proposamena aintzat hartuta, zuzendaritza-taldeak ikastetxean egongo diren sailak zehaztuko ditu, ikastetxearen ikasketa-proiektuari jarraiki; gero, erabaki horren berri emango dio Ordezkaritza Organo Nagusiari.

Ikastetxeko sailak eratzeko proposamena lantzeko garaian, Klaustroak nahitaez bete beharko ditu arau hauek:

1.- Eskola-orduren bat ematen duten ikastetxeko irakasle guztiek sail didaktikoren bateko kide izan beharko dute.

2.- Ezein irakaslek ezingo du sail didaktiko bat baino gehiagoko kide izan. Irakasleren batek bi sail didaktiko edo gehiagori dagozkien jakintzagaiak ematen baditu, ordu-kopuru handiena emanten duen jakintzagaiei dagokien sailekoa bakarrik izango da, nahiz eta ematen dituen gainontzeko jakintzagaiei dagozkien beste sailen bileretara bertaratu eta bertako lanetan eta erabakietan parte hartu ahal izango duen.

3.- Ordainsari osagarria kobratzeko eskubidea izango duten Buruak dituzten Sailen gehienezko kopurua ikastetxeko irakasle-kopuruak ezarriko du, ondoko taularen arabera:

| IKASTETXEKO IRAKASLE-KOPURUA | GEHIENEZKO SAIL-KOPURUA |
|---|---|
| 13 irakasletik behera | 3 |
| 13tik 16ra irakasle | 4 |

| | |
|---|---|
| 17tik 20ra irakasle | 5 |
| 21etik 24ra irakasle | 6 |
| 25tik 28ra irakasle | 7 |
| 29tik 32ra irakasle | 8 |
| 33tik 36ra irakasle | 9 |
| 37tik 40ra irakasle | 10 |
| 41etik 45era irakasle | 11 |
| 46tik 50era irakasle | 12 |
| 51tik 55era irakasle | 13 |
| 56tik 60ra irakasle | 14 |
| 61etik 65era irakasle | 15 |
| 66tik 70era irakasle | 16 |
| 71tik 80ra irakasle | 17 |
| 81etik 90era irakasle | 18 |
| 91tik 100ra irakasle | 19 |
| 100 irakasletik gora | 20 |

4.- Ikastetxeko irakasle-kopurua 13tik beherakoa izanez gero, ondoko sailak eratzea proposatzen da:

a) Hizkuntzen Saila; Gaztelera era Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak ikasgaietako irakasleek osaturik.

b) Zientzien Saila; Matematika, Natur Zientziak eta Teknologia ikasgaietako irakasleek osaturik.

c) Giza Zientzien Saila; Gizarte-Zientziak, Geografia eta Historia, Gorputz-Hezkuntza, Plastika eta Ikus-Hezkuntza eta Musika ikasgaietako irakasleek osaturik.

5.- Ikastetxeko sailak eratzeko proposamena onartu ondoren, zuzendariak dagokion zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzara bidaliko du, proposamenak goian zehaztutako baldintzak betetzen dituen egiaztatzeko. Baldintzak betetzen baditu, ikuskaritzak oniritzia emango dio proposamenari, eta, gero, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du, dagozkion ekonomia- eta administrazio-ondorioak izan ditzan.

6.- Ikastetxeak, bere autonomia erabiliz, bertako Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegian jaso ahal izango du 3. puntuan ezarritako taulan zehaztutakoak baino Sail gehiago, edo koordinazio pedagogikoa gauzatuko duten beste organo batzuk eratzea. Halere, beste Sail edo organo horietako Buruek ez dute, inola ere, ordainsari osagarririk jasotzeko eskubiderik izango.

**B) Batxilergoa edota Heziketa Zikloak eskaintzen dituzten ikastetxeak:**

Ikastetxea antolatu eta koordinatzeko, bere AJAn aurreikusita dauden adina sail ezarri ahal izango ditu. Dena dela, sailaren buruaren ordainketari dagokionez, ikastetxeek honako didaktika-sailak bakarrik eratzeko eskubidea izango dute, **betiere espezialitate horretako berariazko gutxienez bi irakasle baldin badaude edo baldin eta ikastetxeak zehaztutako baldintzak betetzen baditu:**

1.- Gaztelania eta Literatura Saila.
2.- Euskara eta Literatura Saila.
3.- Ingelesera Saila.
4.- Frantses Saila.
5.- Aleman Saila.
6.- Latin Saila.
7.- Greziera Saila.
8.- Geografia eta Historia Saila.
9.- Filosofia Saila.
10.- Erlijio Saila.
11.- Gorputz Hezkuntzako Saila.
12.- Matematika Saila.
13.- Fisika eta Kimika Saila.
14.- Biologia eta Geologia Saila.
15.- Marrazketa Saila.
16. Teknologia Orokorreko Saila.
17.- Musika Saila.
18.- Ekonomia Saila.
19.- Lan-Prestakuntza eta Orientabidea Saila.
20.- Lanbide-arlo bakoitzaren berariazko sailak, arlo horretako modulu eta prestakuntza-zikloei dagozkien espezialitateetako irakasleez osatuak. "Gorputz eta Kirol-Ekintzak” ikasgaiko irakasleek eta “Gorputz Hezkuntza” espezialitateko irakasleek sail bakar bat osatuko dute

Batxilergoa edota Heziketa Zikloak irakasten dituzten ikastetxeetako sailak eratzerakoan honako arau hauek bete beharko dira:

1.- Ikastorduren bat ematen duten ikastetxeko irakasle guztiek didaktika-sailen batekoak izan behar dute.

2.- Irakasle batek ezingo du bi didaktika-sailetakoa izan. Irakasle batek bi didaktika-saili edo gehiagori dagozkien jakintzagaiak irakasten baditu, ordu gehien ematen dituen jakintzagaiari dagokion didaktika-sailekoa izango da; hala ere, ematen dituen beste jakintzagaien sailetako bileretara joan ahal izango du eta haiei dagozkien lan eta erabakietan parte hartu ahal izango du.

3.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak irakasten duten ikasgaiari dagokion didaktika-sailari atxikita egongo dira. Bereziki, Fisika/Kimikako eta Biologia/Geologiako sail bereiziak dauden ikastetxeetan, Natur zientzietako irakasleek sail horietako batean atxikitzea hautatuko dute; hala ere, beste saileko bilera eta lanetan parte hartu ahal izango dute. Gauza bera gertatuko da Kultura Klasikoko irakasleekin Latineko eta Grezierako sail bereiziak dituzten ikastetxeetan.

4.- Ikastetxean berariaz espezialitate batekoak diren bi irakasle ez daudenean eta, beraz, espezialitate horretarako sail bereizirik sortu ezin denean, antzeko bi espezialitate edo gehiagok osatutako sailak sortuko dira; sail horiek espezialitate horietako berariazko gutxienez bi irakaslez osatuta egon behar dute.

5.- Aurreko arauekin bat etorriz sortzen diren sailez gain, ikastetxeek didaktikakoak ez diren beste bi sail sortzeko eskubidea izango dute. Sail horien artean Ekipoen Mantenimenduko Saila edo komeni diren beste sail batzuk sortu ahal izango dira.

6.- Ikastetxeko sailak (didaktikoak eta ez didaktikoak) eratzeko proposamena zuzendaritza-taldeak hartuko du, eta ikastetxeko zuzendariak zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzara bidaliko du.

Proposamenean didaktika-sail bakoitza osatzen duten ikastetxeko irakasleen izena adierazi beharko da, bai eta sail bakoitzeko buruaren izena ere. Ikuskaritzak proposamenak beharrezko eskakizunak betetzen dituen aztertuko du eta, hala bada, ontzat emango du eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaliko du, dagozkion eragin ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.

### 2.5.2. Saileko bilerak

- Elkarrekin bildu daitezen, beren ordutegietan gutxienez astean ordu bat izango dute sailkide guztiek bilera hauetarako gordea. Ikasketa-Buruak kontuan hartu beharko du hori ordutegiak egiterakoan. Bilera hauetara etortzea derrigorrezkoa da sailkide guztientzat.

- Ekainean, saileko kideak bildu beharko dira lan-plana, lorpenak eta hurrengo urterako beharrezko diren zuzenketak aztertzeko. Gero, sail bakoitzari buruzko informazio-txostena ikastetxearen urteko planaren memorian sartuko da.

### 2.5.3. Sail Didaktikoaren bilerak eta zereginak

Sail Didaktikoei dagokie ondoko zereginak betetzea:

a) Espezialitateak berezkoak dituen ikasgaien programazioa lantzea, curriculuma zehaztuz eta ikasturteka banatuz, hala nola ebaluazio-irizpideak zehaztuz.

b) Sail bakoitzak bere espezialitatearekin lotutako aukerakotasun-espazioko jakintzagaiak proposatzea.

c) Nahikotasun-probak, proba gehigarriak eta apartekoak lantzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.

d) Bere espezialitatearekin zerikusia duten prestakuntza edo berrikuntzarako proiektuak edo bitartekoak lantzeko proiektuak proposatzea.

e) Emaitza akademikoak eta programaketak betetze-maila aztertzea eta baloratzea.

### 2.5.4 Saileko Burutza

Sailaren lana kide guztien lana da, eta, aurreko urtean gainditu ez dutenentzako frogak prestatzea eta zuzentzea, edo estatistikak egitea, eta abar, Saileko guztiei dagozkie.

Beti programakuntza ofizialak kontutan hartu behar badira ere, Sailak badu, lan plan horren barruan, programa horiek egokitzeko eta aldatzeko aukera. Aldaketa guztiak Sailaren Akta-liburuan jasota geratu behar dira. Egindako aldaketek curriculumaren gutxienezko irakaskuntzak bete ditzaten zainduko du Ikuskaritzak.

Saileko buruaren ardura da Sailaren funtzionamendua, eta honelakoak dira bere lanak:

a) Sailaren lana zuzentzea eta koordinatzea.

b) Bilerak antolatzea, prestatzea eta zuzentzea.

c) Programaketaren edukinak eta gutxienezko exigentzia-maila bete daitezen arduratzea, ohiko bideetatik kurtsoa gainditu ez duten guztientzako nahikotasun-froga berdina segurtatuz.

d) Sailak eginiko nahikotasun-frogen eta froga gehigarri eta apartekoen kalifikapenak ikustatzea.

e) Sailkideen lanak banatzea.

f) Ikasketa-Buruarekin komunikatzea, Sailaren jarduerak ikastetxeko beste jarduera batzuekin koordinatzeko eta aurreikusitako lan-egitasmoaren garapenari buruzko edo Sailean ikusitako edozein anomaliari buruzko informazioa emateko.

g) Bileretako agiriak egiten direla bermatzea.

h) Ikastetxeko A.J.A.k zehaztu dituenak.

Saileko buruak programaketak urriaren 30a baino lehenago eman behar dizkio ikastetxearen zuzendariari, eta ikastetxean bertan geldituko dira, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura. Gainera programaketa laburtuak ere emango ditu, zuzendariak Ikuskaritzako Lurraldeburuari bidaliko dizkio, eta honek ikastetxeko erreferentziako ikuskariari helaraziko dizkio. Programaketa osoak eta laburtuak Ikastetxearen Urteko Planean sartuko dira. Halaber, kopia bana sailkide guztiei emango zaie.

### 2.5.5. Saileko buruaren hautaketa

Zuzendariak hautatuko du saileko burua, betiere, ondoko irizpideak kontuan hartuta:

1.- Saileko buruak sail horretako irakaslea izan beharko du, eta ezin izango du bestelako zuzendaritza-kargurik izan.

2.- Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko irakasleen artean hautatuko da saileko burua, salbu eta bestelako zuzendaritza-kargurik ez duen saileko inork betebehar hori betetzen ez duenean. Ezin izendatuko da Saileko buru, ezein kasutan, Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegokoa ez den irakaslerik, Sailean Kidego horretakoa den eta beste zuzendaritza-kargurik betetzen ez duen beste irakasleren bat baldin badago.

3.- Goragoko irizpideei men eginda, betiere, ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian ezarritakoa hartuko da kontuan saileko burua hautatzeko orduan.

4.- Oraindik Antolamendu eta Jarduera Araudirik (AJA) ez duten ikastetxeetan, edo AJAk saileko burua hautatzeko modurik aurreikusten ez duenean, zuzendariak hautatuko du saileko burua, saileko kideen proposamenez. Sailak ez badu proposamenik egiten, ikastetxeko zuzendariak bere kasa hartuko du erabakia. Nolanahi ere, lehentasuna izango dute beti Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoko irakasleek, eta halakorik ezean, Bigarren Hezkuntzako Kidegoko irakasleek.

Behin izendatu eta gero ezin izango dio karguari uko egin, hartara, ikasturte hasierarako saileko burutza guztiak beterik egongo dira.

**2.5.6. Saileko dokumentazioa**

Saileko dokumentazio osoa Akta-liburu batean jasoko da eta ikastetxeko pertsona bakarreko nahiz elkargoko organoentzat eta Ikuskaritzarentzat gertu egongo da.

Saileko bilera bakoitzeko bilera-agiri bat beteko da.

Bilera-agiriak, bertaratutako guztiek izenpetu beharko dituzte eta Saileko buruak esandako irakasleak idatziko ditu.

Azken ebaluazioa egin ondoren, ikasturte-hasierako programazioa eta horren betetze-maila aztertuko dira; halaber, bete ez diren arloak aztertu eta egiaztatuko dira, eta hurrengo ikasturterako hobekuntzak proposatuko dira.

Ebazpen honetan bertan "Kalifikapenetan erreklamazioak egiteko eskubidea" atalean zehaztutakoaren arabera gorde behar dira ikasleek egindako azterketa eta ariketak.

## 2.6.- ORIENTABIDE DEPARTAMENTUA

### 2.6.1.-Orientabide Departamentua sortzea

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan eratuko da Orientabide Departamentua, betiere gutxienez hiru kidekoa denean. Honako irakasle hauek osatuko dute departamentu hori:

1.- Hezkuntza-Orientabide espezialitateko irakasleek, horietako batek nahitaez departamentuko burutza izan beharko duena.

2.- Curriculum Anitzeko taldeetako eta Hezkuntzan Berariaz Esku hartzeko proiektuetako irakasle arduradunak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.

3.- Pedagogia Teraupetikoko maisu-maistra adituak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.

4.- Zereginen Ikaskuntzarako Geletako irakasle arduradunak, horrelakorik egonez gero ikastetxean.

### 2.6.2.- Orientabide Departamentuaren egitekoak

Hona hemen Orientabide Departamentuaren egiteko nagusiena: irakasleekin parte hartzea, animatzea, aholkuak ematea eta elkarrekin jardutea ikastetxeetako hezkuntza parte hartzearen erabaki esparru desberdinetan, hala nola, zuzendaritza taldeak, batzorde pedagogikoak, departamentu didaktikoak, irakaskuntza taldeak, tutoretzak, irakasleak... eta lankidetza ematea proiektuen eraikuntza, ebaluazioaren diseinu, esku hartzeko irizpide eta, azken batean, ikasleen hezkuntza-orientabide egitekoan.

Helburu hori betetzeko, honako hauek bete behar dira gutxienez:

a) Kide bakoitzari dagozkion egitekoak koordinatzea.

b) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitean parte hartzea.

c) Ikastetxeko Orientabide Plan eta Tutoretza Planaren burutzapen eta aplikazioaren jarraipena egitea, departamentuaren urteko memorian jasota.

d) Orientabide pertsonal, akademiko edo lanekoa koordinatzea beste administrazio batzuekin edo gizarte inguruko erakunde aginpidedunekin (udaleko gizarte ongizatea, esaterako).

e) Bokaziozko orientabide prozesuak diseinatzea jarduera egokiekin, ikasleen arteko berdintasuna sustatuz euren lanbide etorkizuna hautatzerakoan.

Orientabide Departamentua osatzen duten irakasle guztiek egiteko komunak dituzte taldekideak direnez; hala ere, banan-banan berariazko egitekoak egokitu dakizkieke.

### 2.6.3.- Orientatzailearen egitekoak.

Orientabidea ezin da banandu hezkuntza jarduera multzotik eta, ildo horretan, irakasle guztiei dagokie, euren irakaskuntza egitekoen zati baita. Hala ere, Hezkuntza-Orientabide espezialitateko irakasleei berariazko erantzunkizuna eman ahal zaie gai horretan.

Honako egiteko hauek izango dituzte, besteak beste, orientatzaileek:

a) Ikastetxeko Orientabide Plana eta Tutoretza Plana egitea, zuzendaritza taldearen ikuskaritzapean.

b) Aholkuak ematea eta koordinatzea irakasleak tutoretza lanetan, tutoreekin jardunez taldean zein banaka. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako tutoreekin orientabide lan sakonagoa egingo da, kurtso horretako ikasleei orientabide akademiko-profesionala ematekotan.

c) Ikastetxeko batzorde pedagogikoarekin lankidetza izatea, proposamenak eta jarduteko planak aurkeztuz departamentu didaktiko desberdinak eta irakasle taldeak koordinatzeko.

d) Bilerak egitea aldian-aldian irakasle taldeekin, aztertu eta parte hartzeko ikasteko prozesuen hobekuntzan jakintza arlo desberdinetan.

e) Taldeko tutorearekin eta irakasle taldeekin aztertzea ikasleek ikasteko dituzten zailtasunak eta aholkuak ematea hezkuntza indartzeko neurri eta, hala badagokio, curriculum egokitzapen egokienei buruz.

f) Bere gain hartzea ikastetxeko ikasleen orientabide pertsonal, akademiko eta lanekoa arreta pertsonalaren bidez.

g) Ikastetxean sortu ahal diren jokabide eta elkarbizitza arazoei aurre hartu eta konponbidea ematen laguntzea.

h) Bere espezialitatearekin zerikusia duten irakasgaiak ematea, hala behar izanez gero.

i) Curriculum anitzeko gelen, zereginen ikaskuntzarako gelen eta hezkuntza premia bereziko ikasleei arreta emateko gelen jarraipena egitea.

Berariazko Lanbide-Heziketa ematen diren ikastetxeetan orientatzaileek, tutore eta ikastetxearen beste sailekin batera, ondorengoak bultzatuko dituzte:

- Heziketa-zikloetako aukera bokazional egitarauak, egitarau hauek aurreiritzi sexistarik gabeko izango direlarik, tradizioz gizonezkoentzat izan diren zikloetan emakumezkoen sarrera bereziki bultzatuz eta ikasleak datozen ikastetxeekin harremanetan egongo direla.

- Unibertsitate orientazio egitasmoak, aholku prozesu egokien bidez, goi-mailako zikloak burutzen dituzten ikasleentzat.

- Tutoretza eta Orientazio ekintza-planak, ikasleen integrazio akademikoa, pertsonala eta profesionala lagunduz, eskola-porrotaren prebentzioari arreta berezia ematen eta ahal den neurrian banakako jarraipena egiten.

- Lan munduan sartzen diren ikasleen integrazioaren jarraipenaren koordinazioa, Ikastetxearen beste zerbitzu eta sailekiko elkarlanean (Langai, Lantokiko Praktikak, e.a.), autoenplegua bultzatuz, laneratzerako jarraibideak, e.a.

- Ikastetxe, talde eta hala eskatzen duten pertsonei emateko den heziketa-zikloei buruzko informazioa eta zabalkundearen koordinazioa, ikastetxe beraren sailekiko elkarlanean, mintzaldien bidez, kontsulta partikularrei banakako erantzunak emanez, e.a.

Urteko planean orientabide eta kurtsoari laguntzeko plana sartuko da eta, egoki irizten bazaio, departamentu edo irakaskuntza taldeen bidez garatu nahi den gaiarekin zerikusia duten berariazko proiektuak (prestakuntza, koordinazio, agiri edo materialak egiteko...).

Ikasleei DBHko 3. eta 4. kurtsoetan zehar jakinaraziko zaie zein aukera duten eskola eta lanbide aldetik etapa hori bukatutakoan, egin nahi duten batxilergo edo erdi-mailako heziketa-zikloaren ibilbidea hautatzean behar bezalako erabakia har dezaten. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak materialak egingo ditu berariaz DBHko 4. mailako irakasleentzat, euren ikasleei laguntzan emateko eskola eta lanbide aldetik bideratzerakoan. Tutoreak, etapako azken emaitzekin batera aholku orientatzailea emango die.

Era berean, Batxilergoan zehar ikasleei jakinaraziko zaie zer aukera daukaten unibertsitate eta goi-mailako Lanbide Heziketa egiteko, erabaki zuzena har dezaten.

Ikasketaburuak orientatzailearen egitekoa erraztuko du ikastetxeko tutoreekin izan behar duen lanean.

### 2.6.4.- Hezkuntza-Orientabideko irakasleen ordutegia

Hezkuntza-Orientabideko irakasleek ordutegi jakin bat bete behar dute, ikastetxeko gainerako irakasleek dutenaren modukoa dena, hain zuzen ere. Alegia, asteko 30 orduko ordutegia dute, eta ordu horietatik 23 ikastetxean ohiz egotekoak dira; asteko beste zazpiak, hilabetean zenbatuko direnak, berriz, ikastetxean ohiz kanpo egotekoak dira.

30 ordu horien banaketa Ebazpen honen 2.1.1. azpiatalean dago zehaztuta. Banaketa hori berdin-berdina izango da ikastetxeko gainerako irakasleen kasuan ere. Hezkuntza-Orientabideko irakasleen 17 irakastorduen barruan, ordea, ematen dituzten eskola-orduez gain, orientazio-jarduerei propio eskainitako orduak ere zenbatuko dira.

## 2.7. ZAINTZAK

### 2.7.1. Zaintzako irakasleak

Ikastetxea, eta zehatzago esanda, zuzendaria, ikastetxeko ordezkaria den aldetik, ikasleen arduraduna da eskola-orduetan. Hori dela eta, uneoro, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak jolasgaraian dauden bitartean ere, zaintzak egiteko behar besteko irakasle egongo dira ikastetxean.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen jolasgaraiko zaintzak etapa horretako ikasleei eskolak ematen dizkieten irakasleek egingo dituzte preferenteki.

Ordu guztietako zaintza ondo beteta egonez gero bakarrik eman diezaioke Zuzendariak zenbait irakasleri bestelako zerbitzurik, adibidez, liburutegia, eta abar.

### 2.7.2. Zaintzako irakaslearen funtsezko eginkizunak

- Ikasleak zaintzea jolasgaraiak dirauen bitartean, baita libre geratzen direnean ere, beren irakaslerik ez dagoelako edo beste arrazoiren bat dela-medio.

- Ikasleek korredoreetan, eta orokorki, ikasgelaz kanpo duten jokaeraz arduratzea. Horrek ez du esan nahi beste irakasleek horretan lagundu behar ez dutenik.

- Bere txandaren barruan gertatzen den edozein ustekabe konpontzea, eta ahal bezain laster ikasketa-buruari berri ematea. Norbaitek sendagilearen zerbitzua behar izanez gero, beharrezko gestioak egin beharko ditu.

- Klasea eman behar duten eta klasea ez den bestelako eginbeharrak dituzten irakasleak agertu diren eta garaiz iritsi diren ala ez azaltzea, hutsegiteen berri-emate orria behar bezala betez.

- Ikastexeko A.J.A.k eman diezazkion bestelako eginkizunak.

### 2.7.3. Jagoletza-orria

Beti ere Ikuskaritzari erakusteko moduan egongo den eguneroko jagoletza-orria gordeko du Ikasketa-Buruak. Orri horretan honako datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Irakasleen hutsegiteak eta atzerapenak.
- Ikastetxean gertaturiko edozein gorabehera.
- Gertatutako istripuak.
- Zaindaritzako irakasleen sinadurak.

## 2.8. TUTORETZAK

### 2.8.1. Tutoreen izendapena

Ikastetxe guztietan taldeko tutore bat egon behar da, Curriculum desberdinak eratzeko taldeetan izan ezik; talde hauetan bi tutore egongo dira. Tutorea, noski, talde horretako

irakaslea izateaz gain, talde horretako ikasle guztiek ematen duten jakintzagai bateko irakaslea bada, hobeto.

Ahal den neurrian, ahaleginak egingo dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek, batez ere 1. eta 2. mailakoek, tutore bera izan dezaten.

Tutoreak izan daitezkeen irakasleak taldeak baino gutxiago izanez gero, bete gabeko tutoretzak bestelako karguak dituzten edo beste taldeetako tutoretza duten irakasleek hartu beharko dituzte, zaintzako orduak kentzeko aukera egongo delarik, baldin eta zaintzako ordu horiek beteta geratzen badira.

Tutoreen izendapena ikastetxeko Zuzendariak egin behar du, Ikasketa-Buruak proposatuta.

Zuzendariak tutore-karguaz beste kargurik ez duten irakasleei beste funtzio batzuk izendatuko dizkie, baldin eta tutoretza-talderik izendatuta ez badute.

### 2.8.2. Tutoreen eginkizunak

Tutore bakoitzak bere taldeko ikasleak orientatu eta talde horri eskolak ematen dizkioten irakasleak koordinatu behar ditu, bai eta ikasleen familiei guztiaren berri eman ere. Zehazki, honako zeregin hauek beteko ditu:

a) Bere ikasle-taldeari egokitzen zaizkion irakasleak koordinatzea, bai programazio eta ebaluazioari dagokionean, bai irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar ematen diren banakako naiz orotarako egoerak aztertzeko unean ere. Tutoreek ikasturtean zehar, ebaluazio-bileretatik kanpo, hiru bilera bederen eduki behar dituzte bere taldeko irakasleekin. Tutoreak bilera hauen berri Ikasketa-Buruari emango dio eta bilera horien deialdia egingo du.

b) Ikasleak orientatzea, alderdi pertsonal, akademiko eta profesionaletan; beharrezkoa zaionean, ikastetxeko eta inguruetako orientazio-zerbitzuen laguntza jasoz.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa amaituta, eta irakasle-taldearen informazioa jaso ondoren, orientazio-aholkuak idatzi beharko ditu.

d) Ikasleei eta hauen gurasoei eskolako jarduerei buruzko informazioa ematea. Honek ez du kaltetuko, gurasoek zuzenean irakasleengana edo eta ikastetxeko gobernu organoetara jotzeko duten eskubidea. Ikastetxeak esango die familiei dagokien tutoreen asteko bisita-ordutegia.

e) Ebaluazio-bilerak koordinatzea, ikasleen notak ipini eta beraiei ematea, jakintzagaien estatistikak eta Ikasketa-Buruak eskatutako datuak eta bere tutoretza-lanari dagozkion ikasleen dokumentazioa betetzea.

f) Beren taldeko/ikasgelako ikasleek galdutako eskola-orduen jarraipena egitea, eta falta horiek ikastexeko ikasketa-buruari eta familiei jakinaraztea.

g) Eginkizun hauek ezarriz edo garatuz ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera Araudiak esleitzen dizkion gainontzekoak.

### 2.8.3. Hutsegiteen kontrola

Irakasleek derrigorrez kontrolatu behar dituzte ikasleen hutsegiteak eta tutoreari jakinarazi. Tutoreen ardurapean dago ikasleen hutsegiteez arduratzea.

Familiei ikasleen hutsegiteen berri ematerakoan ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudiak dioenari jarraituko zaio. Araudian gai horri buruz ezer esaten ez bada, Ordezkaritza-Organo Gorenak familiei hutsegiteen berri emateko epeak ezarriko ditu, hauen informazio zuzen eta zehatza emango zaiela ziurtatuz.

Familiengana hutsegite hauen berri lehenbailehen hel dadin erarik egokiena hartuko du Ikasketa-Buruak eta Zuzendariak behar bezalako aginduak emango dizkie tutoreei zein ikastetxeko Administraritzako langileei.

### 2.8.4. Familiekiko bilerak

Ikastetxeak familiekiko informazio-bilerak antolatu beharko ditu, eta bideak jarriko ditu ikasleen gurasoetan bertan parte har dezaten. Orobat, irakasleak, tutoreak eta tutoreak ez direnak ere hara azaltzeko ahaleginak egingo ditu ikastetxeak.

Familiekiko bilera horien zehaztasunak (irekiak, orokorrak, taldeka, banaka edo nola egingo diren) eta beren antolaketa ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudiak dioenaren araberakoak izango dira. Araudiak gai horri buruz ezer ez badio, Ordezkaritza-Organo Gorenak hartuko ditu hartu beharreko erabakiak. Era berean, Ordezkaritza-Organo Gorenak azaroaren 1az aurretik bilera horien egutegia ere finkatu beharko du.

### 2.8.5.- Batxilergoko taldeen tutoretzaren antolaketa

Batxilergoko kurtso bakoitzeko ikasleek, gutxienez, 32 irakastordu izango dute astean. Ikastetxe bakoitzak zehaztuko du haien ordutegia. Horretarako, erreglamenduan ezarritako gutxieneko orduak errespetatuko ditu, eta, hala erabakitzen badu, 32 ikastordu horietatik bat utziko du irakasle tutoreak ikasleekin tutore-lan zuzenak egin dezan, Tutoretzako Ekintza Planaren garapenerako. Hori erabakiz gero, tutore-lana ikastordutzat hartuko da tutorearen ordutegian.

Tutoretza ordua 32 ordu lektiboetan sartzen ez bada, Tutoretzako Ekintza Plana irakasleek ikastetxeari eskaintzen dieten dedikazio zuzeneko ordutegian garatuko da batez ere, ikasleen banakako eta taldeko arreta hobea izateko.

Kasu horretan, irakasle tutorearen irakastorduetan ez da tutore-laneko ordurik zenbatuko.

## 2.9.- IKASLEEN TUTORETZA PRAKTIKETAN

Unibertsitateko tituludun berriek irakaskuntza arloko egitekoetan prestakuntza praktikoa izan dezaten, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lankidetza-hitzarmen bana izenpetu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin, horrelako praktikak unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan errazteko konpromisoa hartuta. Hortaz, ikastetxeetako zuzendaritzei gomendatzen zaie ahal den neurrian erraztea tutoretzapeko praktika horiek.

Ikastetxeko zuzendariak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza lanak egiten dituzten irakasleei eskola-orduen barruan kasuan kasuko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezen. Hutsegite horiek justifikatzeko deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu beharko dira. Ezin izango da ordezkorik eskatu horiek betetzeko.

## 2.10. IKASLE IRITSI BERRIEI ARRETA EMATEKO IRAKASLEAK.

**Kultura artekotasuna sustatzeko proiektuaren irakasle dinamizatzaileak:**

Gutxienez ikasleen % 15 etorkinak diren Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek irakasle-erdiari dagokion ordu-kreditua izango dute.

Irakasle hauen berariazko funtzioak hauek izango dira::

- Beharrezkoa denean, ikastetxeko proiektu eta dokumentu guztietan kultura artekotasunaren ikuspegia sustatzea (Hezkuntza-Proiektua, Ikasketa-Proiektua). Era horretan, kultura ezberdinen ezagutza eta errespetua sustatuko da, elkarbizitza demokratikoaren oinarri diren printzipioak garatuz.

- Eskola-erkidegoaren barne dauden kultura ezberdinak ikastetxean, gelan, material eta baliabideetan agertuko direla bermatzeko lan egitea, bereziki kultura ezberdinetako ikasleen ekarpena kontuan hartuz.

- Irakasleekin batera lan egitea ikastetxea familiengana hurbiltzeko eta familiak eskola-erkidegoan integratzea bultzatzea.

- Harrera-plan bat diseinatzen, aplikatzen, eta haren jarraipena eta ebaluaketa egiten laguntzea. Plan horren helburua ikasle guztiak eta haien familiak hezkuntza-sisteman errazago sartzea izango da.

- Gela arruntaren barne, ikasle etorkinak edo etnia-gutxiengoetako ikasleen integrazioa eta hezkuntza-arreta errazten duten estrategia, prozedura eta baliabideei buruz irakasleen esperientziak jasotzea, bereziki curriculumaren bitartez bigarren hizkuntza irakasteko. esperientziak. Irakasleekin batera estrategia horiek guztiak abian jartzeko lan egitea.

- Kultura arteko hezkuntzari, migrazio-prozesuei eta beste metodologia- nahiz didaktika-gaiei buruzko dokumentazio-funtsa sortu eta eguneratzea.

- Zuzendaritza-Taldearekin batera lan egitea, ikastetxerako etengabeko prestakuntza-plan bat sortzeko, iritsi berri diren ikasleek zehaztutako errealitatea kontuan hartuta.

**Hizkuntza-Errefortzurako Programako irakasleak:**

Hizkuntza-Errefortzurako irakasleen funtzioak hauek izango dira:

- Hizkuntza-Errefortzurako gelaren programazioa osatzea, ikasleen premietara egokituz.

- Tutorearekin batera, ikasle bakoitzarentzako banakako esku-hartzerako plana osatzea.

- Hizkuntza-Errefortzurako irakaskuntza antolatzea:
  - Ikasleak ezagutu eta taldetan banatzea.
  - Gela antolatzea.
  - Ikasmateriala aztertu, antolatu eta prestatzea.
  - Dagokion hezkuntza-errefortzua ematea.

Hizkuntza-Errefortzurako irakasleak, iritsi berri den ikaslearen tutorearekin batera, funtzio hauek bete beharko ditu:

- Iritsi berri den ikaslearen harrera eta integrazioa erraztea, haren gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan ikaslearen parte-hartzea sustatzea.

- Ikasleen ikasketa eta aurrerapenen ebaluaketan parte hartzea.

-Material eta edukiak egokitzea.

Eskola-erkidegoko kidea izanik, gainontzeko irakasleek bezala, Hizkuntza-Errefortzurako irakasleek funtzio hauek ere beteko dituzte:

- Hizkuntza-irakaskuntzako jarduerak planifikatzea.
- Hezkuntza-prozesuan, kultura arteko ikuspegia kontuan hartzeko jarduerak diseinatzea.

## 3.- IKASLEGOAREN ANTOLAKETARI BURUZKO ARAUAK

## 3.1.- ESKOLA-ORDUTEGIA

Ikastetxeko Ordezkaritza-Organo Gorenari dagokio ikaslegoaren irakastorduak finkatzea, hezkuntza-etapa bakoitzaren berezko arauak errespetatuz.

DBH eta DBHO ematen duten ikastetxeek kontuan izan beharko dituzte 2009-2010 ikasturtean zehar ikasleen artean gertatuko diren egoera anitzak eta ikastetxearen behar bezalako funtzionamendua bideratzeko eta ikasleen arteko arrazoirik gabeko diferentziak ahal den neurrian gutxitzeko, antolaketa-modu egokiak bilatu beharko dituzte.

OOGak finkatuko ditu ikastetxea irekita egongo den denbora eta irakastorduez kanpoko denboran zehar egingo diren jarduerak. Horren onespena, ikastetxearen arduraduna den Zuzendariak onartzeari eta irakasleen nahiz pertsonal ez-irakaslearen lan-eskubideak errespetatzeari baldintzaturik egongo da. Hartutako erabakiaren berri Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko zaio.

### 3.1.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak

Ikastetxeak ezarriko du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ikastorduen ordutegia. Horretarako urriaren 16ko 175/2007ko Dekretuaren II. eranskinean (EHAA, 07-11-13koa) finkatutako gutxieneko orduak errespetatuko dira.

EAEko Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren II. eranskinean Gorputz Hezkuntzarako finkatutako gutxieneko ordutegia betetzea erabakitzen duten ikastetxeen kasuan, DBHko 1. eta 2. mailetan astean gorputz-hezkuntzako saio bi egongo dira, gutxienez; saio bakoitza, gutxienez, 60 minutukoa izango da.

DBHko 3. eta 4. mailetarako, berriz, saio bakarra egongo da, iraupen berekoa.

Kasu guztietan, denbora horretatik kanpora hartuko da kiroldegira joan-etorrietan ibiltzeko eta higiene-ohiturak lantzeko behar den denbora."

Klaseak goizez eta arratsaldez emango dira; astean arratsalde bat, ordea, irakasleen prestakuntzarako jarduerak egitera dedikatu ahal izango da. Gainera, ikastetxeko OOGak asteko beste arratsalde batean ere klaserik ez ematea erabaki ahal izango du. Erabaki hori hartu ahal izateko, beharrezkoa izango da ikastetxeko OOGan ordezkaturiko estamentu guztien 2/3 gutxienez alde egotea (gurasoak, ikasleak eta irakasleak).

Ekainean eta irailean klaseak goizez bakarrik eman ahal izango dira.

Klaseak goizez eta arratsaldez ematen diren egunetan, eskola-orduak 6 klasez osaturik egongo dira. Klase bakoitzak ordubete iraungo du eta honela banatuko dira:

- **Goizez**: 4 klase, bakoitza 60 minutukoa, bi alditan banaturik eta 30 minutuko atsedenaldiaz bereizirik.

- **Arratsaldez:** 2 klase, bakoitza 60 minutukoa.

Etengabeko jarduneko egunetan 6 klase emango dira, guztiak iraupen berdinekoak, eta gutxienez bost ordu emango dira klase ematen. Horrez gain, atsedenaldi bat edo gehiago egongo dira, guztira 30 minutuko atsedena bermatuko dutenak.

DBH eta DBHO irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko zenbait klaseren iraupena murriztu beharrean baldin badaude, klase-jardunen iraupena 55 minutukoa izateko hautua egin ahal izango dute, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jarduneko egunetan. Beste edozein egoeratan ez da onartuko klaseetako iraupena 55 minutukoa izatea.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, astean zenbait arratsalde libre izanik ere, edo klaseetako iraupena edozein izanik ere, tokian tokiko curriculumetan aurreikusi diren irakaskuntzako jardun guztiak bete daitezen, baita ekainean eta irailean ere.

Ordutegiak ondoko baldintza hauek bete behar ditu:

a) Eskolak goizenez goizeko zortzietan hasiko dira, eta beranduenez goizeko 9etan.
b) Goizeko eta arratsaldeko saioen artean gutxienez ordu eta erdi iraungo duen atseden bat egingo da.
c) Arratsaldeko eskolak beranduenez arratsaldeko bost eta erdietan amaituko dira.
d) Gehienez, hiru eskola-ordu emango da, jolasgarairik egin gabe.
e) Jolasgaraien denborak 15 minutuko iraupena izango dute gutxienez. Egun osoan zehar jolasgarai bakarra balego, 30 minutuko iraupena izango luke gutxienez.

### 3.1.2. Batxilergoko eta Heziketa Zikloetako ikasleak

Batxilergoa egunez ikasten duten ikasleen asteko ordutegia ikastetxeak ezarriko du. Horretarako, Batxilergoko curriculuma finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarten duen otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuan ezarritako gutxieneko orduak errespetatuko ditu. (2009/02/27ko EHAA).

Asteko 32 klase-orduak emateko, asteko hiru egunetan 6 klase-ordu emango dira eta beste egun bitan, berriz, 7 klase-ordu, eta aldez aurretik erabakiko da zein egunean zenbat ordu eman.

Klaseak 6 orduz ematen diren egunetan, klase guztiek nahitaez 60 minutuko iraupena izango dute. 7 klase ematen diren egunetan, klaseek 50 minutuko iraupena izango dute gutxienez.

DBH eta DBHO irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko zenbait klaseren iraupena murriztu beharrean baldin badaude,

klase-jardunen iraupena 55 minutukoa izateko hautua egin ahal izango dute, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jarduneko egunetan. Beste edozein egoeratan ez da onartuko klaseetako iraupena 55 minutukoa izatea.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, astean zenbait arratsalde libre izanik ere, edo klaseetako iraupena edozein izanik ere, tokian tokiko curriculumetan aurreikusi diren irakaskuntzako jardun guztiak bete daitezen, baita ekainean eta irailean ere.

Batxilergoa gauez ikasten duten ikasleen asteko ordutegia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saiburuaren dagokion Aginduan ezarritakoa izango da, helduentzako Batxilergoko irakaskuntza arautuko duen Aginduan.

LOGSEk sortutako Heziketa-Zikloetako ikasleen asteko ordutegia Lanbide-Heziketako Zuzendaritzak 1998ko ekainaren 24an Heziketa-Zikloak ezartzen dituzten ikastetxeei emandako Jarraibideetan xedatutakoari egokituko zaio. LOEk sortutako Heziketa-Zikloetako ikasleen asteko ordutegia Heziketa-Ziklo horien ezarketa aginduko duen arautegian xedatutakoari egokituko zaio.

Batxilergoa egiteko ikasleak aukeratu duen ikastetxeko ikasketa-buruak, Batxilergoko irakasgai komunak eta Musika edo Dantzako Erdi-Maila aldi berean egiten dituzten ikasleen ordutegiei buruz behar diren neurri egokiak hartuko ditu eta, arautako musika irakaskuntzako ikastetxeko ikasketa-buruarekin koordinatuz, irakasgai komun horietako orduak goizean goiz edo goizeko azken orduetan pilatuko ditu. Hori egiterik ez balego, edo ikastetxearen antolakuntza orokorraren aurkakoa balitz, ikasketa-buruak erabakiko du ikasle horiek irakasgai komun horietako bakoitza zein talderekin ikasiko duten, eta ebaluazio, orientazio eta tutoretzaren ondorioetarako erreferentziako talde bat esleituko dio.

Orduen doiketa dela eta, adinez nagusi ez diren ikasleak Batxilergoko irakasgai komunak egiteko dituzten ikastetxetik atera behar direnean, gurasoek edo legezko tutoreek idatziz hartuko dute beren gain erantzukizun hori ikaslea ikastetxetik ateratzen den momentutik.

Ikasleak egin behar ez dituen irakasgaiak ematen diren bitartean, ikasleak gelatik alde egiten duenean, ikasketa-burua arduratuko da denbora horretan arreta har dezan.

### 3.1.3. Araudi horren salbuespenak

Salbuespena gisa, Hezkuntzako lurralde-ordezkariak araudi horri aldaketak egitea onartu ahal izango du, baldin eta horiek behar-beharrezkoak badira ikastetxeko ikasleen edo garraioa edota jantokia konpartitzen duten ikastetxeen garraio-zerbitzuak koordinatzeko.

## 3.2. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Ikastetxe batek aurrikusten badu ikastetxe horretatik kanpo jarduerak (bisitaldiak, txangoaldia, etab.) egitea ikasleen irakastorduen barruan, jarduera horiek jarduera osagarrien programan sartuta egon beharko dute, eta hala ez bada, Ordezkaritza-Organo Gorenak aurretik onetsi beharko ditu.

Eskolaz kanpoko ekintza ikastetxea kokaturik dagoen herritik kanpo egin behar denean, adin nagusikoak ez diren ikasleen guraso edo legezko tutoreen baimena idatzia behar da.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein ekintzatan bi irakaslek, gutxienez, lagunduko dituzte ikasleak. Ikasleak laguntzeko gehienezko irakasle-kopurua honako hau izango da: irakasle bat 20na ikasleko edo, gutxiago badira 10etik gorako taldeko, beti ere, lehen aipatu den gutxienezko irakasle-kopurua zainduko delarik. Ahal den neurrian, jarduera horretan parte hartzen duen/duten taldearen edo taldeen ekipo didaktikoa osatzen duten pertsonez baliatuz hornitu beharko da irakaslego laguntzailea.

Zuzendariak, edo berak izendatutako beste batek, ikasleek ikastorduetan egiten dituzten irteeren eta ikastetxean edo hemendik kanpora egindako eskolaz kanpoko ekintzen txostena egingo du, haien edukina, iraupena, zein ordutan eta zein egunetan egin diren zehaztuz. Txosten horrek ikastetxean egon beharko du, Ordekaritza-Organo Gorenak edo Ikuskaritzak eskatzen dutenerako.

Eskolaz kanpoko irteerak, txangoak, udalekoak eta abar planifikatzean, kontuan hartu beharko dira ikasle guztien premiak, hpb dituztenenak barne. Ikasle guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea; beraz, aldez aurretik ikusi, eta egokienak aukeratu beharko dira, inor ez baztertzeko.

## 3.3. CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEKO TALDEAK

Curriculum desberdinak eratzeko taldeak indarrean dagoen arautegiaren araberab antolatuko dira:

- 1997ko uztailaren 9ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, E.A.E.ko Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako curriculum desberdinak eratzeko programak arautzen dituena (97-07-29ko E.H.A.A.)

- 1998ko apirilaren 20ko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, E.A.E.ko Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako Ikastetxeentzako curriculum-aniztasunerako oinarrizko programaren eredua arautzen duena (98-05-26ko E.H.A.A.)

- Hezkuntza Sailburuordetzaren Deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxeei deialdia luzatzen diena, 2009-2010 ikasturterako Curriculum Desberdinak Eratzeko taldeak antolatzeko baimena eskatzekoa.

Curriculum anitzeko lanpostuetako irakasleen eskola-kopurua 12 ordukoa izango da; horietatik, bederatzi gutxienez dagokien arloko talde baimenduarekin izango dira, gainerakoak bere espezialitatearen berezko gaiak edo antzekoak emateko edo, hala

behar izanez gero, hezkuntza indartzeko egitekoetarako izanik. Gainera astean bi ordu emango dute banakako tutoretza lanak egiten bere taldeko ikasleekin.

Irakasleon irakastorduak gutxitzea konpentsatzeko, Zuzendariak pareko gehikuntza jarriko die zaintza-orduetan, edota beste jarduera batzuk esleituko dizkie, irakasle guztiek bete ditzaten ikastetxean eman beharreko ohiko egonaldiko 23 orduak. Jarduera horiek aniztasunaren trataerari laguntzeko izango dira preferenteki.

## 3.4.- HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEI ARRETA ESKAINTZEA

### 3.4.1. Aplikatu beharrekoa den araudia.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko, bete behar izango dituzte ekainaren 23ko 118/1998 Dekretua, (98-07-13ko E.H.A.A.n), hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza arautzen duena, eta Dekretu hau garatzeko argitaratu den arautegia:

- 1998ko uztailaren 24ko Agindua (E.H.A.A. 98-08-31) eta 1998ko abenduaren 22ko Agindua (E.H.A.A. 99-01-19), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrenho hauek arauzten dituztenak: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura.

- 1998ko uztailaren 30eko Agindua (E.H.A.A. 98-08-31), eta 2002ko maiatzaren 7ko Agindua (E.H.A.A. 02-05-09), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituztenak, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.

- 1998ko uztailaren 30eko Agindua (E.H.A.A. 98-08-31), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.

- 1998ko uztailaren 24ko Ebazpena (E.H.A.A. 98-08-31), Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena.

### 3.4.2.- Ospitaleko edo etxeko arreta edo arreta terapeutiko-hezigarria behar duten ikasleak

Abenduaren 20ko 226/2006 Dekretuaren bitartez, ospitaleko eta etxeko hezkuntza arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-zentroak sortu diren. Horien helburua da medikuaren aginduz ospitale batean dagoelako, etxean suspertzen dagoelako edo programa terapeutiko-hezigarri batean dagoelako ikastetxera joaterik ez duten ikasleei hezkuntza-mailako laguntza ematea.

* **Ospitaleko laguntza** emango da Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ospitaletako hezkuntza-laguntzako geletan.

Ikasleak ospitaleko tratamendua behar duenean, ospitaleko gelako irakasleak emango dio arreta pedagokikoa, eta ikasleak ikastetxean duen tutorearekin koordinatuko da..

* **Etxeko languntza**, berriz, irakasleak emango du ikasleen etxeetan, baldin eta medikuaren aginduz ezin badira ikastetxera joan.

Egoera horretan dauden ikasleek eskolan ikasi eta gizarteratzeko, ikastetxeetako zuzendariek 1998ko uztailaren 30eko Aginduko 35. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko dute, (EHAA 1988-08-31). Agindu horren bitartez, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dira, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak jarri hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.

* **Eremu terapeutiko-hezigarriko laguntza** Osakidetzako haur eta gazteentzako osasun mentaleko zerbitzuarekin batera emango da, ezarritako lankidetza-hitzarmenaren arabera.

Ikasle batek arazo psikopatologiko larriak izan eta laguntza intentsiborik behar badu, CAHDTEko programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko eskatu ahal izango da. Horretarako, hezkuntza-premia berezietako Berritzeguneetako aholkulariek eta Osakidetzako haur- eta gazte-psikiatriako ataleko oniritzia beharko da.

Gainera, programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko, honako hauek beharko dira:

- Aitak/amak/legezko ordezkariak berariaz emandako baimena.
- Balorazio-batzordearen akordioa.

Denboraldi jakin baterako onartuko da terapia-zentroan, batez beste 3 eta 6 hilabeterako; denbora hori gehienez ere 12 hilabetera arte luzatu ahal izango da, talde terapeutikoak egoki irizten badu. Edozelan ere, helburua da haurra edo nerabea berriro eskolatzea.

### 3.4.3.- Curriculumaren norbanako egokitzapenak aurkezteko epeak

3.4.3.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuak aurkezteko epeak

- Ikastetxearen Zuzendaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuaren proposamena Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentrora, urriaren 30a baino lehen, bidaliko du.

- Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroaren Zuzendaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuaren proposamena, Hezkuntza-Premia Berezien Aholkulariek prestatutako txostenarekin batera, Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzara azaroaren 21a baino lehen bidaliko du.

- Hezkuntzako Ikuskaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuen zerrenda, Hezkuntza-Premia Berezien Aholkulariek prestatutako aldeko txostenarekin eta Ikauskaritzaren Ontzat Emanarekin batera, Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzara bidaliko du abenduaren 15a baino lehen.

- Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzak curriculumaren egokitzapena onartua izan den ala ez ikastetxeei idatziz jakinaraziko die, urtarrilaren 9a baino lehen, ikastetxeak notifikazioa jasotzen duen egunetik aurrera 7 eguneko epean ikaslearen guraso edo legezko tutoreei informa diezaien.

3.4.3.2.- Batxilergo eta Heziketa-Zikloetan curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuak aurkezteko epeak

- Ikastetxearen Zuzendaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuaren proposamena Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentrora, urriaren 30a baino lehen, bidaliko du.

- Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroaren Zuzendaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuaren proposamena, Hezkuntza-Premia Berezien Aholkulariek prestatutako txostenarekin batera, Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzara azaroaren 21a baino lehen bidaliko du.

- Hezkuntzako Ikuskaritzak curriculumaren norbanako egokitzapen garrantzitsuen zerrenda, Hezkuntza-Premia Berezien Aholkulariek prestatutako aldeko txostenarekin eta Ikauskaritzaren Ontzat Emanarekin batera, Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzara bidaliko du abenduaren 15a baino lehen.

- Hezkuntza Berriztatzeko Lurralde Burutzak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari bidaliko dizkio batxilergoari dagozkionak eta Lanbide Heziketako Zuzendaritzari Erdi mailako eta Goi-mailako heziketa-zikloei dagozkienak. Zuzendaritza horiek onartu edo ezetsi egingo dute, urtarrilaren 15a baino lehen bidalita ebazpena ikastetxeetara, jakinarazpena heltzen zaienetik zazpi egun naturaleko epearen barruan idatzizko txostena eman diezaien ikasleen ordezkari legalei, jakinarazpenaren kopiarekin batera.

3.4.3.3.- Aparteko adimena duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako curriculumaren hedapenezko egokitzapenak aurkezteko epeak

- Ikastetxearen Zuzendaritzak azaroaren 15a baino lehen bidaliko du Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentrora curriculumaren hedapenezko egokitzapenerako proposamena.

- Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroaren Zuzendaritzak abenduaren 1a baino lehen bidaliko du Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzara curriculumaren hedapenezko egokitzapenaren kopia bat, Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularien txostenarekin batera.

- Hezkuntzako Ikuskaritzak Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde-burutzara bidaliko du curriculumaren hedapenezko egokitzapenen zerrenda, Hezkuntza-Premia Berezien Aholkularien aldeko txostenarekin eta Ontzat Emanarekin batera, abenduaren 22a baino lehenago.

- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde-burutzak idatziz jakinaraziko die ikastetxeei curriculum egokitzapena onartutzat jortzen den ala ez urtarrilaren 9a baino lehenago; hala, jakinarazpena jaso eta zazpi egun naturaleko epea bete baino lehen, ikastetxeak idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko arduradunei, eta Pedagogi Berrikuntzarao Lurralde-burutzaren jakinarazpenaren kopia bat bidaliko die.

3.4.3.4.- Aparteko adimena duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen eskolatzealdia murrizteko eskabideak aurkezteko epeak

- Ikastetxearen Zuzendaritzak, DBHko 1. kurtsoa, DBHko 3. kurtsoa eta Batxilergoko 1. kurtsoa hasi baino lehenago, apirilaren 30a baino lehen bidaliko du eskolatze murrizpenerako proposamena Pedagogi Berrikuntzareko Lurralde-burutzara.

- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde-burutzak txosten bana eskatuko die Hezkuntza-Premia Berezien Aholkulariei eta Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzari; horiek maiatzaren 14a baino lehenago bidali beharko dizkiote.

- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde-burutzak pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzara bidaliko du dokumentazio guztia, maiatzaren 18a baino lehenago.

- Pedagogi Berikuntzarako Zuzendaritzak idatziz jakinaraziko die ikastetxeei eskolatzearen murizpena onartutzat jotzen den ala ez ekainaren 2a baino lehenago; hala, jakinarazpena jaso eta zazpi egun naturaleko epea bete baino lehen, ikastetxeak idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko arduradunei, eta Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde-burutzaren jakinarazpenaren kopia bat bidaliko die.

## 3.5.- IKASLE ETORKINEN ESKOLATZEA

Gure hezkuntza sisteman berandu sartzen diren ikasle etorkinen eskolatzea, hau da, matrikula egiteko epetik kanpo plaza bat eskatzen duten ikasle etorkinen eskolatzea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako ikastetxe guztietara bidaliko dituen argibideen arabera egingo da.

## 3.6.- IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Gai honi dagokionez, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa (abenduaren 16ko EHAA)– araututakoa aplikatuko da, bai eta indarrean dagoen araudiari jarraiki ikastexeko IIPak dekretu hori zehazteko araututakoa ere.

Bestaldetik, ikasleen arteko tratu txarrak gertatzen direnean Hezkuntza Ikuskaritzari ezagutzera eman behar zaio lehenbailehen. Kasu hauetarako, Hezkuntza Sailak emandako Jarduteko Gida erabiliko da.

## 3.7.- IKASLEEN BERTARATZEA KLASEETARA

- Eguneko nahiz gaueko ikasketetan, ikasle ofizialek klaseetan esku hartzeko eskubidea eta betebeharra dute, ikaslea matrikulaturik dagoen materietan borondatezko asistentzia inolaz ere ezartzerik ez dagoelako.

- Edonola ere, azaroaren 10eko 24, 25 eta 26/1992 Legeek (92-11-12ko BOE) Estatuaren eta Erlijio-Elkarteen Federazio eta Batzorde hainbaten arteko Lankidetza-Itunak onesten dituztenek, jasotzen duten hainbat berezitasun hartuko dira kontuan.

- Arrazoi bategatik edo bestegatik, egunen batean ikasle gutxi badago ere, irakasleek beti bezala eman behar dute eskola.

- Ikasleen hutsegiteak beren gurasoek edo legezko tutoreek justifikatu behar dituzte dagokion tutorearen aurrean eta ikasketa-buruak onartu behar ditu. Beren justifikapenak aurkeztea erabakitzen duten 18 urtetik gorako ikasleei lan-harreman arruntetan eskatzen diren justifikapenak eskatuko zaizkie.

- Ikasleren baten hutsegiteak gehiegi izanik, justifikapenak dudamudakoak badira, kontrol zehatzagoa egiteko neurrien proposamena egin diezaioke Ikasketa-Buruak Ordezkaritza-Organo Gorenari, horrek ontzat har dezan.

- **DBHko ikasleei buruz**, justifikazio gabeko faltak jarrera absentista baten ondorioz baldin badira, ikastetxeek Hezkuntzako Ikuskaritzak ikasturtearen hasieran jakinaraziko dien prozedura jarraituko dute. Edozelan ere, **hila bakoitzeko 5a baino lehenago**, i**kastetxearen Zuzendaritzak** zonaldeko **Hezkuntzako Ikuskaritzara** (eta, bere kasuan, herriko Udalara) bidaliko ditu **azken hileko absentismoaren eta eskolatu gabekoaren erregistro orriak**.

- Orain arte esandakoa kontutan harturik, Ordezkaritza-Organo Gorenak ikasleen hutsegiteak eta jaso ditzaketen zigorrak arautuko ditu, ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudian, apirilaren 19ko 160/1994 Dekretuaren arabera.

## 3.8.- ERLIJIOA

### 3.8.1. Erlijioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan

Erlijioa irakasgaia ikastetxeek derrigorrean eskaini beharko dute, eta ikasleek irakasgai hori ikasi ala ez hautatu ahal izango dute. Ikastetxeek urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarrian xedatutakoari jarraiki jokatuko dute (E.H.A.A. 07-11-13):

“ Ikasturte-hasieran, erlijio-irakaskuntza jaso nahi duten ala ez adieraziko dute adinez nagusi diren ikasleek eta adingabekoen gurasoek edo tutoreek. Erlijio-irakaskuntza jaso nahi dutenek, hauen artean aukeratu beharko dute: erlijio katolikoko irakaskuntza, beste erlijio-konfesio batzuetako irakaskuntza, baldin eta Estatuak nazioarteko akordioak edo lankidetzakoak izenpetuak baditu erlijio horiekin, eta, betiere, hitzarmen horietan adostutako baldintzetan, edo Erlijioen Historia eta Kultura ikastea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan”.

Gurasoek edo tutoreek idatziz egiten duten adierazpen hori ikaslearen administrazio-espedientean sartuko da ebaluazioan kontuan hartzeko edo alde batera uzteko. Izan ere, erlijioa (Erlijio Katolikoa edo beste erlijio batzuk nahiz Erljioen Historia eta Kultura beste irakasgaiak bezala ebaluatu behar da; ostera, erljioa ikasten ez duten DBHko ikasleei ematen zaien hezkuntza-arreta ez da ebaluatuko.

Bestalde, kontuan izan behar da transkribatutako araua eliza katolikoaren erlijioaren irakaskuntzari eta Espainiako estatuarekin hitzarmenak egin dituzten gainerako erlijioen (islama, ebanjelista eta judua) irakaskuntzari lotuta dagoela.

2009-2010 ikasturtearen hasieran, aurrez aipatutako erlijioak ikasteko eskaera egin duten ikasleen kopurua jakinaraziko zaio dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari.

Ikastetxeko planean erlijioko irakasleen zerrenda sartuko da, eta, horrez gain, talde bakoitzarentzako ordutegia zehaztuko da.

Erlijio Katolikoa edo beste erlijioak nahiz Erlijioen Historia eta Kultura irakasgaiak ikasteko eskaera egin ez duten gurasoen seme-alabei –Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dauden ikasleak– hezkuntza-arreta eman beharko zaie, derrigorrean.

### 3.8.2.- Erlijioa Batxilergoan

Ikasturtearen hasieran, adin nagusiko ikasleek, gurasoek edo adingabeen tutoreek erlijioa ikasteko asmoa duten ala ez adieraziko dute, ikastetxeak batxilergorako ezarritako eskola-orduetan.

Erlijioa ikasi nahi dutenek honakoen artean aukeratu beharko dute: erlijio katolikoa ala Estatuak hezkuntza-arloan lankidetza-hitzarmenak sinatuta dituen erlijioen ikaskuntza, (islama, ebanjelista eta judua), hitzarmen horietan jasotako baldintzetan.

## 4. IKASLEGOAREN EBALUAZIOARI BURUZKO ARAUAK

### 4.1.- EBALUAZIO-BILERAK

#### 4.1.1.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen Ebaluazioa

Ebaluazio-bileretan, taldearen tutorea den irakasleak koordinaturik eta, hala badagokio, orientatzailearen laguntzaz, irakasle-taldeak agiri bidez kontsignatzen ditu, aurrez elkarrekin deliberatu ondoren, bilera bakoitzaren egunera arte burututako ebaluazio-jardueren emaitzak.

Bileren kopurua eta edukia, bilera bakoitzeko akta, ebaluazio-txostena eta gai honen inguruko gainontzeko arauak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak 2008ko uztailaren 7an emandako Aginduan bilduta daude, 2008/07/30eko EHAAn argitaraturik.

Bigarren eta hirugarren bileretan, D.B.H.ko ikastetxeetan curriculum desberdinak eratzeko programei buruzko 1997ko uztailaren 9ko Aginduan xedatutakoa kontuan hartuko da (E.H.A.A. 97-07-29).

#### 4.1.2.- Batxilergoko ikasleen Ebaluazioa

Ikasle hauen ebaluazioa honako xedapen hauetan xedatutakoaren arabera egingo da:

- Otsailaren 3ko 23/2009 Dekretua, Batxilergoko curriculuma ezartzen dena eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen dena, (2009/02/27ko E.H.A.A.).

- 2009ko xxxxaren xxko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Batxilergoan ikasleen ebaluazioa arautzen duena, (2009/xx/xxko E.H.A.A.).

#### 4.1.3.- Heziketa-Zikloetako ikasleen Ebaluazioa

Ikasle hauen ebaluazioa honako xedapen hauetan xedatutakoaren arabera egingo da:

- Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena, (2008/03/05eko E.H.A.A.).

- 1997ko uztailaren 15eko Agindua (1997/10/03ko E.H.A.A.), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Berariazko Lanbide Heziketa egin dezaten ikasleen ebaluazio prozesua arautzen duena, eta 1998ko abenduaren 3ko Agindua (1999/02/03ko E.H.A.A.), aurreko agindua aldatzen duena.

- LOEk ezarritako Heziketa-Zikloak ikasten dituzten ikasleen ebaluazio prozesua arautuko duen arautegia.

**4.1.4.- Ebaluazioari buruzko arau orokorrak**

Atal honetan xedatutakoa ordezko izaeraz aplikatuko da Ikastetxearen Antolaketa eta Funtzionamendu Arautegiak ebaluazio-bileretarako berariazko araudirik zehazten ez duen kasuetan.

A) Ebaluaziorako baldintzak

- Ebaluazio-bilera baliozkotzat hartu ahal izateko, ondoko baldintzak bete beharko ditu gutxienez:

a) Taldeko irakasle guztiak bertaratu ahal izateko ordutegi egokiaz egin beharko da.

b) Dagokion taldeko irakasle guztietatik, gutxienez 2/3 egon beharko dute bertan.

c) Irakasgai bakoitzeko notak eta estatistikak, hala nola Ikasketa-Burutzak galdatutako beste edozein agiri, irakasleek tutoreen egoera-orrietan osatu beharko dituzte, ebaluazio-bilera egin baino 24 ordu lehenago, gutxienez.

d) Tutoreak jakintzagai bakoitzeko emaitzen txostena ekarri beharko du, baita ebaluazio-bileran aztertu beharreko gai guztien gidoia ere; azken hau bileraren hasieran aurkeztuko da eta, hala badagokio, onespena emango zaio.

B) Bilerako akta

- Ebaluazio-bilera bakoitzeko Ebaluazio-Akta bana idatziko da eta bertan ondoko gaiak jasoko dira gutxienez:

a) Bertaratutako irakasleen zerrenda eta guztien sinadura.

b) Bertaratu ez diren irakasleen zerrenda, ez agertzeko baimen egokia bazuten ala ez zuten espreski adieraziz.

c) Irakasgai desberdinetan lortutako emaitzen eta sortu izan litezkeen arazoen analisia.

d) Taldearen egoera orokorraren analisia, errendimendu akademikoaren eta jarreren nahiz arazoen arabera.

e) Izan litezkeen banan-banako arazoen analisia eta hartu beharreko heziketa-errefortzuko neurriak edo bestelako jarduerak.

- Halaber, ebaluazio bakoitzea, Ikasketa-Buruak eman ez diren eskolen zerrenda landuko du jakintzagai bakoitzeko eta ikasle-talde bakoitzeko, arrazoia azalduz eta ondorioak behar bezala baloratu ahal izateko Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta Ikastetxeko Ordezkaritza-Organo Gorenaren eskueran jarriko du.

C) Ikasleek ebaluazio-bileran parte hartzea

- Ikastetxeko Ordezkaritza-Organo Gorenak erabakiko du ikasleen ordezkariak zein unetan sar daitezkeen eta zein gaietan esku hartu dezaketen. Argi eta garbi utzi behar da ikaslegoaren banan-banako ebaluazioa eta gai pertsonalak taldeko irakasleek bakarrik tratatuko dituztela.

D) Dokumentazioa

- Ebaluazio-bileren ondoren, Ikasketa-Buruak tutoreen txostenak bilduko ditu eta Ordezkaritza-Organo Gorenari aurkeztuko dizkio eta hauekin batera, emaitzen estatistika, ikasleek eskoletara egindako hutsegiteen zerrenda, irakasleek egindakoena eta, Ordezkaritza-Organo Gorenak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak dagokion aldia behar bezala ebaluatu ahal izan dezaten, beharrezko gerta litekeen beste edozein datu.

## 4.2.- KALIFIKAZIOEI BURUZKO ERREKLAMAZIO-ESKUBIDEA

Ikasle guztiek beren ikas-errendimenduari buruzko balorazio objetiboa jasotzeko duten eskubidea gauzatzeko, ikasleek aurretik honako hauek ezagutu behar ditu: ebaluazio-irizpideak, helburuak eta dagokion mailako eta maila horretako kurtsoetako jakintzagaietan ebaluazio positiboa lortzeko eska daitezkeen gutxieneko edukiak. Horrenbestez:

a) Ikastetxeko curriculum-proiektuan eta sail didaktikoetako agirietan aipatutako puntu horiek jaso beharko dira.

b) Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudiak bermatu beharko du agiri horiek ikasleek eta legezko ordezkariek eskuratu ahal izango dituztela.

Ikasleek eta, hala badagokio, beren gurasoek eta legezko ordezkariek ikasleen errendimenduan eraginik izango duten lan, froga eta ariketa guztiak eskuratu ahal izango dituzte, horiek zuzendu eta gero. Horren ondoren, dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta berrikusia izan dadin eskatu. Zuzenketa ez da mugatuko kalifikapen kuantitatibo edo kualitatibo hutsa adieraztera, baizik eta egindako errakuntzak seinalatu behar ditu edo kalifikapena arrazoitu behar du.

Ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudian adieraziko da nola egin behar diren erreklamazioak. Orobat, berrikuspena egiteko epeak eta baldintzak ageriko dira bertan, kontuan izanik curriculum ofiziala, ikastetxeko curriculum-proiektua,

programazioak eta publiko egindako kalifikapen-irizpideak irakasleentzat loturapekoak direla.

Derrrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleen frogak, lanak eta ariketak ikasturteko edozein momentutan eskuragarri izan daitezen, irakasleek ikastetxean gorde beharko dituzte.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleen ohiko eta aparteko deialdien azken probak, ikasleek ikusi ondoren, dagokion Sailean utzita geldituko dira eta han gordeta egongo dira urte oso batean zehar. Ikasleak edo bere ordezkari legalak berak egindako idatzizko ebaluazio-frogaren bat eskatuko balu, azterketa horren kopia bat emango zaio.

**4.2.1. Ikastetxean bertan erreklamazioak egiteko bidea**

Ikastetxean bertan erreklamazioak egiteko jarraitu beharreko bidea ikastetxeko Antolamendu eta Jarduera-Araudian ezarritakoari lotuko zaio.

Besterik ezean, honako arauak ezarriko dira:

1. Edozein kalifikapen, (zati batekoa zein behin-betikoa), argitaratu eta aditzera eman ondoren, ikasleek 48 orduko epea izango dute kalifikapen horietaz erreklamazioa egiteko.

2. Edozein erreklamazio dagokion irakaslearen aurrean egingo da. Irakasleak erantzuna emango du 48 orduko epean. Irakaslearen erantzunarekin pozik gelditzen ez bada, bide hauetako bati helduko dio ikasleak:

a) Behin-behineko ebaluazioetan: Tutorearengana joko du eta horrek jakintzagaiari dagokion Sailari aurkeztuko dio, dagokion erabakia har dezan.

b) Behin-betiko ebaluazioetan: Ohiko eta aparteko deialdien azken probeetako behin-betiko ebaluazioei buruzko erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dizkiote Zuzendariari, nahiz ikasle ofizialek nahiz libreek ere.

- Zuzendariak dagokion Sailari emango dio eta honek, eztabaidatu eta gero, erreklamazioari buruzko txosten arrazoitua emango du. Bere erabakia hartzerakoan, Sailak erabakitako eta jendearen aurrean agertutako edukin, maila eta ebaluatzeko irizpideekiko frogaren eta bere zuzenketaren adostasuna neurtuko du.

- Ikaslearen arrazoiak ontzat emanez gero, Saileko buruak Zuzendariari proposatuko dion kalifikapen berria ebaluazio-agirian eta bestelako dokumentuetan jasoko da, dagokion prozedura erabiliz.

### 4.2.2. Ikastetxeaz kanpo erreklamazioak egiteko bidea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen behin betiko kalifikapenei dagokienez, ikastetxean egin daitekeen erreklamazio-jardunbidea agortuz gero, Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arauzten duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko uztailaren 7ko Aginduan ezarritakoa beteko da. (08-07-30eko E.H.A.A.)

Batxilergoko eta Heziketa Zikloetako ikasleen ohiko eta aparteko deialdien azken probeetako ebaluazioei dagokienez, ikastetxean bertan erreklamazioak egiteko bidea agortu ondoren honakoa izango da jarraitu beharreko jardunbidea:

- Ikaslea hartutako erabakiarekin bat ez badator, 48 orduko epean Ikuskaritzako Lurralde Burutzara jo dezake idazki baten bidez. Ezadostasuna ikastetxeko Zuzendariari jakinaraziko zaio eta horrek erreklamazioa sortaratzi duten jatorrizko ariketak eta sailaren bileraren agiria Ikuskaritzari bidaliko dizkio.

- Hezkuntzako Ikuskaritzak agiri horiek aztertuko ditu, kontutan hartuz dagokion Sailak aurretik zehaztutako programazio-edukinekin eta ebaluatzeko irizpideekin bat datozen, eta ondoren:

a) Baldintzak betetzen baditu, Ikuskaritzak erreklamazioa ontzat ez hartzea erabakiko du.

b) Erreklamazioa eragin duen ariketa aurretiaz finkatu den programazioaren edukinekin bat etorriko ez balitz, Hezkuntzako Ikuskaritzak hartuko du bere gain, dagokion Sailak proba berri bat prestatu, aplikatu eta neurtzen duela ikuskatzeko erantzunkizuna.

c) Erreklamazioa eragin duen ariketa programazioaren edukinekin bat etorrita ere, emandako kalifikapena sailak aurretiaz finkatutako neurketa-irizpideetatik urruntzen bada, Hezkuntzako Ikuskaritzak kalifikapen hori aldatzea proposatuko du, dagokion aldera aldatu ere.

- Beti ere, dagozkion txostena eta proposamena Hezkuntza Lurralde Ordezkariari bidaliko zaizkio, egoki deritzon erabakia har dezan, 7 egun natural baino gehiago luzatuko ez den epean, erreklamazioa Hezkuntzako Ikuskaritzari aurkezten zaionetik kontatzen hasita.

### 4.3.- SALBUESPENAK ETA BALIOKIDETZAK

1.- Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren salbuespena 175/2007 Dekretuaren 2. azken xedapenean arautatakoaren arabera izapidetuko da; horretarako, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariari egin beharko zaio eskaera. Eskaera hori ikasturtearen hasieran edo ikaslea matrikulatzen den unean egin beharko da, eta ikastetxeko zuzendariaren bitartez izapidetuko da; beraz, eskaera egitean, beharrezko dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

2.- Musika- edo Dantza-ikasketak eta DBHko edo Batxilergoko irakaskuntzak batera egin ditzaten ikasleentzako baliokidetzak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketaren sailburuaren 2004ko abenduaren 3ko Aginduan (EHAA, 05-01-04) xedatutakoaren arabera onartuko dira.

Halaber, ikasle horiek curriculum egokitzapena eskatu ahal izango dute Musika eta Gorputz Hezkuntzaren irakasgaietan, lehen esandako Aginduak xedatu duenaren arabera.

Baliokidetza eta curriculum-egokitzapen horiek eskatzeko epea irailaren 30ean amaituko da. Institutuko zuzendariak azaroaren 1a baino lehen ebatzi behar du eskaria. Zuzendariak, halaber, ebazpen horien kopia bidali beharko du, azaroaren 15a baino lehen, Pedagogia Berrikuntzako dagokion lurraldeburutzara; burutzak, azkenik, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara bidaliko du.

3.- Entzuteko, ikusteko edo mugitzeko arazo larriak dituzten ikasleentzat bakarrik egin daiteke Batxilergoko ikasgai jakin batzuen salbuespen osoa, eta kasu oso berezi edo apartekoetan. Salbuespen horiek eskatzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998ko uztailaren 24ko Aginduak (EHAA, 98-08-31) bere 16. eta 17. artikuluetan xedatu duenari jarraituko zaio.

Salbuespen horietarako epeak:

- Ikastetxeko zuzendaritzak proposamena bidaliko du, behar bezala dokumentaturik (lehenago esandako artikuluek xedatu dutenaren arabera), Hezkuntza Berriztatzeko Lurraldeburutzara: urriaren 16a baino lehenago.

- Hezkuntza Berriztatzeko Lurraldeburutzak txosten bana eskatuko die Zonako Hezkuntzako Ikuskaritzari eta Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroari, eta horiek, gehienez ere, bi asteko epean egingo dute: urriaren 31ra arte.

- Hezkuntza Berriztatzeko lurraldeburutzek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara bidaliko dituzte hala betetako espedienteak, azaroaren 5a baino lehen, bidali ere.

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak dagokion Ebazpena bidaliko du ikastetxe bakoitzera azaroaren 20a baino lehen, eta ikastetxeek ikasleei jakinaraziko diete azaroaren 30a baino lehen.

4.- Heziketa Zikloetako ikaleei buruzko konbalidazio eta korrespondentziak, Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren 1998ko azaroaren 9ko Heziketa Zikloetako konbalidazio eta korrespondentziari buruzko Jarraibideetan xedatutakoaren arabera burutuko dira.

**5.- Beste ikaskuntza-alor batzuk.**

Gainerako ikaskuntza-alorrei dagokienez, Hezkuntza Sailean ez da salbuespenik aurreikusi. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntzari buruzko ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuari jarraiki, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak bere bilakaeraren une bakoitzean behar duen heziketa jasoko du, hobeto integra dadin.

Ikasle guztiek dute ikaskuntza-alor guztien edukiak lantzeko aukera, nork bere gaitasunen neurrian; horretarako, beharrezkoa denean, ikaslea eskolatuta dagoen kurtsoaren ikasgai bakoitzeko curriculumak egokitu egingo dira, CNE (Curriculuma Norbanakoari Egokitzea) esanguratsua izan arren.

Lesioak, gaixotasunak eta bestelako arazoak direla-eta behin-behineko minusbaliotasun fisikoa duten ikasleak daudenean, dagozkien mediku-ziurtagirien arabera desegokiak diren ariketa fisikoetan egokitzapenak egitea aztertu beharko da.

## 5.- EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Urteroko izaerarekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan diagnostiko- ebaluazioa egingo da. Aipatutako ebaluazioa DBHko 2. mailako ikasle guztiei egingo zaie. Nolanahi ere, ebaluazio horrek ez du eragin akademikorik izango.

Diagnostiko azterketa hauek helburu bikoitza izango dute: ikasleen gaitasun-maila egiaztatu eta neurriak jartzea, maila hori hobetzeko. Horretarako, ebaluazioan lortutako datuak aztertu ostean, ikastetxe bakoitzak esku hartzeko planak prestatuko ditu, hobetzeko. Plan horiek baloratu egingo dira eta, era berean, horien jarraipena egingo du Ikuskaritza Zerbitzuak.

Diagnostiko prozesu honen arudia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko Aginduan dago, (EHAA 2008-12-09).

## 6.- LANGILE ESPEZIFIKOAK

### 6.1.- JANTOKIAREN ARDURADUNA

Kudeaketa zuzeneko eskola jantokiaren zerbitzuak, hau da, ikastetxearen beraren bidez ematen denak, zenbait kudeaketa organori eragiten die, izaera kolegiatu edo pertsona bakarrekoa izan, hala nola, Ordezkaritza Organo Gorena, Zuzendaritza Taldea, Jantokiaren Batzordea, Jantokiaren arduraduna, eta abar.

Honako egiteko hauek dagozkio jantokiaren arduradunari, Zuzendaritza taldeak utzita, unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak arautzen dituen 2000ko martxoaren 22ko Aginduan (2000-03-28ko EHAA) jasotzen denaren arabera:

**a)** Bazkarien zerbitzua antolatu eta menuen jarraipena egitea.

**b)** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean jantokiaren zerbitzuari atxikitako langileriaren burutza lanak egitea eta funtzionalak kanpoko langileena, hala badagokio, enpresa hornitzaileen eta bere langileen arteko lan harremanen kaltetan gabe.

**c)** Bazkaltiarrei kobratzearen jarraipena, bere ikastetxeko zein zerbitzu hori erabiltzen duten beste ikastetxe batzuetakoena. Elkarbanatutako jantokien kasuan, kudeaketa ekonomikoa bakarra izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxearen kudeaketa orokorrean integratua.

**d)** Jantokiko fondoen kontrol zuzena eta jarraia egitea.

**e)** Ikuskaritza lanak egitea. Ikuskaritzatzat hartuko da, besteak beste, ikastetxeko instalazioetan egotea zerbitzua ematen den bitartean, jantokiaren disziplinaz eta behar bezala funtzionatzeaz arduratuta.

**f)** Ordezkaritza Organo Gorenari (OOG) proposatzea ikasleek parte hartzeko programak hartzea.

**g)** Jantokiko tresnen inbentarioa egin eta gaurkotzea aldian-aldian eta hornitzeaz arduratzea.

**h)** Ordezkaritza Organo Gorenari (OOG) txostena aurkeztea kontratatutako enpresaren zerbitzuaren ezaugarri eta kalitateari buruz, eta proposatzea instalazioen obra eta hobekuntzak.

**i)** Elikagaien eta lokalen higienea kontrolatzea.

**j)** Jantokia zaintzea zerbitzua ematen ari den bitartean, birkokatutako irakaslegoa denean (Uztailaren 28ko197/1998 Dekretua).

**k)** Zerbitzuak behar bezala jarduteko beharrezko den beste edozein egiteko, bai eta indarreango araudiak ematen dizkionak ere.

Bi langile motak bete ahal izango dituzte jantokiaren kudeaketa eta administrazio lanak:

- Birkokatutako langileen lanpoltsako arduraduna, uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuan (1998-09-08ko EHAA) jasotako neurriak aplikatuz.

Irakasle horien lan-baldintzen barruan jasotzen da ikastetxean 20 ordu ematea, hain zuzen, lau ordu eguneko, eta egiaztatzea –gutxienez- 450 ordu euskara eskola, 2009ko irailetik 2010eko abuztura bitarteko aldian.

- Ikastetxearen beraren jantoki-arduraduna:

Jantoki-zerbitzuaz arduratzen den pertsonaren junaldiaren portzentajea hau izango da:

| Mahaikideak | Jantoki-zerbitzurako jardunaldia | Egon beharreko ordu kopurua |
|---|---|---|
| 30 arte | Eskola-jardunaldiaren 1/3(astean 6 irakastordu) | Egunean ordu bat |
| 31tik 250ra | Eskola-jardunaldiaren 1/2(astean 8,5 irakastordu) | Egunean 1,5 ordu |

| | | |
|---|---|---|
| 251etik gora | Eskola-jardunaldi osoa (astean 17 irakastordu) | Egunean 2 ordu |

Aurreko zereginak betetzeaz gain, jantokiaren arduradunak jantokian bertan egon behar du; era berean, bazkari arurreko eta osteko atsedenaldietan ere egon beharko du, eta aurreko koadroan adierazitako batez besteko ordu-kopuruak bete.

Jantoki partekatuen kasuan, hau da, jantoki bateko mahaikideek maila ezberdineko beste ikastetxe batekoekin batera jaten dutenean beste ikastetxe horren jantokian, jantokirik ez duen ikastetxeak jardunaldi erdiko lanaldi-murrizketa izango dute, (astean 8,5 irakastordu), 2000ko martxoaren 22ko Aginduaren (arestian aipatuaren) 15. artikuluaren artikuluan e), f) eta j) puntuetan finkatutako zereginak bete ditzaten. Zeregin horiez gain, beste hauek ere beteko dituzte:

- Zerbitzua ematen den bitartean jantokian izango dira eta diziplinaz eta jantokiaren funtzinamendu egokiaz ardurako dira.
- Otorduak eta otorduena urreko eta osteko atsedenaldiak gainbegiratuko dituzte.
- Mahaikideei jantokia duen ikastetxera joaten lagunduko diete eta handik itzultzen ere bai.

## 6.2.- JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMAKO IRAKASLEAK.

Hautatutako programez arduratzen diren irakasleak dituzten ikastetxeei dagokienez, horiek bete beharreko funtzioak Sailburuordetzaren 1998ko maiatzaren 29ko ebazpenean daude xedatuta; ebazpen horren bidez, hain zuzen, jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programa iragarri zen, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan.

Irakasle bakoitzaren ordutegia ikastetxeko zuzendaritzak onartuko du; bestalde, irakasleek antolatuko dituzten jarduerak ikastetxeak ordutegi- eta egutegi-banaketari dagokionez onartuta duen sistema orokorraren baitan egingo dira, eta ikastetxeko egutegian onartutako aldiak eta egunak errespetatuko dira, bai lanaldi trinkoari dagokionez, bai lanaldi zatituari dagokionez.

a) Ikastetxeko eskola-ordutegia.

Jarduera osagarriak programatzeko eta gauzatzeko izaten den lankidetzari eta, eskola-orduetan, ikastetxeko arduraduna bertan egoteari esker, proiektua Ikastetxearen Urteko Planeko irakaskuntza-jardueren programan sartu ahal izango da, eta, ondorioz, erreferentzia-multzo bat esleitu eta ikastetxeko prestakuntza-programetan parte hartu ahal izango du; halaber, ikastetxeko irakasleen eta hezkuntzan laguntzeko espezielisten arteko koordinazioa bultzatuko du. Era berean, ordutegi horren barruan, proiektuan duen ardurari dagozkion hezkuntza-premiei erantzun beharko die.

Ordutegi-atal horrek asteko lanaldiaren heren bat bete beharko du; hau da, 10 ordu.

b) Ikastetxeko eskolaz kanpoko jardueren ordutegia.

Irakasleak programan diseinatutako eskolaz kanpoko jarduerak gauzatu beharko ditu, eta irakasle arduradunak zuzenean esku hartuko du beren borondatez parte hartzen duten ikasleekin.

Ordutegi-atal horrek, berriz, asteko lanaldiaren bi heren beteko ditu; hau da, 20 ordu.

Ordutegi-banaketan aldaketak egin daitezke proiektuen ezaugarri berezien eta ikastetxeen egoeraren arabera; gutxienekoak honako hauek izango dira:

10 ordu astean, ordutegi lektiboan

20 ordu astean, eskolaz kanpoko jardueren ordutegian. Ikasleen arratsaldeko jardunaldi lektiboa amaitzean, gutxienez bi ordu egingo dira.

## 7.- HEZKUNTZAKO LAN KONTRATUKO LANGILEAK ETA HEZITZAILEAK

Ikastetxe batzuetan, beste laguntzaile profesional batzuen zerbitzu espezifikoak jasotzen dituzte hpb dituzten ikasle batzuek; profesional horiek *Berritzegune*etatik berentzat planifikatutako hezkuntza-proposamenari laguntzen diote.

Lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileak beren hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera zuzenduko dira, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariaren 2004ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bitartez argitaratu eta erregistratutakoaren arabera (EHAA, 2004ko ekainaren 17koa). Gainera, batzorde paritarioa eratu da, hitzarmen hori aztertu eta zaintzeko, eta trenza jurídico hori et ahorren earanskinak osatzen dituzten gai guztiak garatu eta jarraitzeko. Langile horien funtzionamenduari buruzko orienbabide zehatzak ere emango dira, horretarako prestatutako jarraibide edo zirkularren bitartez.

Ikastetxeetako zuzendaritzek erraztasunak eman behar dituzte hezkuntza langile horiek (logopedak, fisioterapeutak, okupazio terapeutak, hezkuntza laguntzarako espezialistak) beraiei dagozkien plangintza (plana, ordutegia…), koordinazio (bilerak) eta jarraipen ekintzetan parte har dezaten.

### 7.1.- ZEINU-HIZKUNTZAREN INTERPRETEA

Hezkuntza-sistemako zeinu-hizkuntzaren interpretea zeinu-hizkuntzaren eta ahozko komunikazio-hizkuntzaren profesional iaioa da; zehazki, hezkuntza-praktikan irakasle arruntak ikasleei esaten diena itzultzen du, zeinu-hizkuntza hizkuntza nagusitzat duen ikasleak erraz ulertzeko moduan.

Funtzioak:

- Ikasle gorrak curriculuma barnera dezan laguntzea; horretarako, Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-mailetan, irakaslearen eta zeinu-hizkuntzan gai den ikasle gorraren arteko komunikazio-zubia bermatuko da.

- Irakasleen eta ikasleen artean komunikazio-bitartekariaren funtzioa betetzea, bien arteko harremanean sartu gabe; hau da, une oro, jarrera inpartziala izango da, eta babestea, aholkatzea edo kontrolatzea adierazten duten joerak alde batera utziko dira.

- Ikasgelako irakasleekin koordinatuta egotea, irakasgaiak edo jarduerak aurrez jakiteko eta horiek hizkuntzara egokitzeko.

- Ikasgelako irakasle-taldeari aholkatzea eta horiekin lankidetzan aritzea, eskolatutako ikasle gorraren beharretara egokitzeko.

- Klaustroari eta ikasleei ikastetxean eta ikasgelan izango dela jakinaraztea, bere funtzioak garatzeko beharrezko diren baldintzak normalizatzeko.

- Bere jardueraren konfidentzialtasuna errespetatzea.

## 7.2.- JARDUNALDIA BETETZEN DELA EGIAZTATZEKO KONTROLA

Hezkuntzako langileak ikastetxean betetzen dituen funtzioen arabera dagokion ordutegia betetzeko betebeharra du; horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko diren kontrol-mekanismoak har ditzake.

Inolako justifikaziorik gabe ordutegia betetzen ez bada, **zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzari** jakinarazi beharko dio ikastetxeko zuzendariak, eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean araututakoari jarraiki, dagokion kopurua soldatatik kendu ahal izango da, izan dezakeen diziplina-erantzukizunean eragin gabe.

Era berean, greba egiten bada, ikastetxeko zuzendaritzak greba horrek izan duen eraginaren berri emango dio zonaldeko ikuskaritzaren buruzagitzari, eta, horrez gain, haurrei ahalik eta arreta egokiena emateko antolaketa prestatuko du, eskura dituen giza baliabideekin.

Bestalde, irakasle batek esleitu zaion sarrera- eta irteera-ordutegia **(lektiboa nahiz ez-lektiboa)** ez duela betetzen ikusten bada, zuendariak behar bezala bete dezan eskatuko dio. Arau-hauste horrekin jarraitzen duela ikusiz gero, ondorioak hileroko soldatan nabarituko dira; baina, horrez gain, lurralde-ordezkaritzako langileen atalari eta Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaie, beharrezko diren neurriak har ditzaten.

## 7.3.- BERTARATZE-AGIRIAK

Hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen, ikastetxeetako zuzendariek dagokien zonaldeko ikuskaritzaren **buruzagitizari** bidali beharko dizkiete aurreko hileko asistentziari buruzko datuak. Hezkuntza-langileek greba eginez gero, aipatutako

bertaratze-agiria bidaltzeaz gain greba egin duten langileen zerrenda bidaliko da, greba amaitzen den egunaren biharamunean.

Ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-agiriak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinarazitako jarraibideak jarraituz. Aplikazio bera erabiliko da greben gorabeherak jakinarazteko eta greba egin duten langileen izen-abizenen zerrenda prestatzeko.

Hileroko agiri horiek beren funtzioak ikastetxean betetzen dituzten hezkuntza-langile guztien bertaratze-agiriak izango dira. Langile horietako batek bere funtzioak bi ikastetxetan edo gehiagotan betetzen baditu, ikastetxe bakoitzeko zuzendariak dagokion bertaratze-agiria bidaliko du.

## 8. IRAKASLEGOAREN PRESTAKUNTZA

2009-2010 ikasturtean zehar, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasle guztiek asteko ordubete izango dute irakaslegoaren prestakuntzarako proiektuak garatu ahal izateko.

Prestakuntza-proiektuak hurrengo Aginduan xedatutakoaren arabera planteatuko dira: AGINDUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena; honen bidez, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-zuzkidura edo diru-laguntzetarako deia egiten da, prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza berriztatzeko proiektuak gauzatu ditzaten 2009-2010 ikasturtean zehar.

Agindu honek orientatzailea izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dirulaguntzarik edo proiektuan parte hartzeagatiko ziurtapenik eskatzeko asmorik ez duten ikastetxeentzat. Nolanahi ere, prestakuntzako helburuek ikastetxeko Urteko Planean azalduta agertu beharko dute.

Hori dela eta, prestakuntza ekintzetarako asteko ordua zuzendaritza taldeak antolatu behar du, egitasmoa aurrikusitako helburuak betetzeko onartutako egitasmo horren arabera eta esandako egitasmoak bere eskura duen neurrian, edo bestela ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko duen moduan; horretarako autonomia dauka bere eskumenetarikoa da eta. Ekintza horren betetzea kontrolatu egin behar da, irakasle bakoitzaren orduen barruan dauden beste guztiak bezala.

## 9. TEKNOLOGIA BERRIAK – IKT - PREMIA PLANA

Informazio eta komunikazio azpiegitura mantentzea eta garatzea eta Teknologia berriak (IKT) sustatzea da helburua. Ikastetxeko zuzendariak, helburu hori lortzeko, arlo horretako arduradun bat edo gehiago izendatuko du, ikastetxeko irakasleen

gaitasunaren eta orduen aldetiko erabilgarritasunaren arabera. Arduradun horien irakastorduak murriztuko dira, honako lauki honen arabera:

| Ikastetxeko taldeen kopurua | 10 taldetik behera | 10 taldetatik 24etara | 25 taldetatik 49etara | 49 taldetik gora |
|---|---|---|---|---|
| Dedikazio orduen kopurua | 4 | 6 | 8 | 10 |

Ikastetxeko Premia arduradunak, Zuzendaritzarekin koordinatuta, honako zeregin hauek izango ditu, ikastetxeko Premia instalazioen esparruan:

- Ikastetxeetako informatika eta multimedia sistemekin jarduteko esparrua.

  - Ikastetxeko Premia instalazioen eta ekipamenduaren jarduera egokia ikuskatu eta kontrolatuko du.

  - Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu Zuzendaritzak adierazitako prozedurei jarraituz, instalazio horiei dagokienez agintzen zaizkion lan guztiak egingo ditu.

  - Mantenimendu enpresekin, ekipamendua hornitzen duten enpresekin eta komunikazio enpresekin baita Hezkuntza Saileko Informazio Sistemen Zuzendaritzarekin (horren menpe egongo da eragin teknikoetarako) ere solaskide lanak beteko ditu.

- Ikastetxeetako IKTen dinamizatzaile moduan jarduteko esparrua.

  - IKTi buruzko ikastetxearen urteko planaren garapena koordinatu eta dinamizatzea.

  - Proposamenak egitea, baliabide informatikoak eta multimedia sistemak dauden espazioak erabiltzeko arauak ezartzeari begira.

  - Ikastetxeko Zuzendaritzari baliabide informatiko eta ikusentzunezkoak irakaskuntzan erabiltzeko egin beharreko lanaren urteko programazioa proposatzea, ikastetxearen urteko planean sar dadin, eta etapen eta ikasgaien araberako txostenen eta ikastetxearen txosten orokorraren prestaketa koordinatzea, ikastetxearen urteko planaren abaluazioan sar daitezen.

  - Baliabide informatikoen erabilera koordinatzeko eta IKT programa garatzen duten programazioak finkatzeko etapen eta ikasgaien ekipoek egiten dituzten bileretan parte hartzea.

  - IKTak erabiltzeko eta curriculumean sartzeko lanetan irakasleen parte hartzea sustatzea. Irakasleei aholku ematea, ekipoetan instalatuta dauden hezkuntza programei buruz, eta jarduera eta maila bakoitzarentzat egokiena denaren berri ematea.

- Ikastetxeko prestakuntzaren esparruan prestakuntza emateari edota kontratatzeari begira irakasleek IKTi buruz duten ezagutza maila aztertzea.

- Berritzeguneetako IKT aholkulariekin batera finkatzen diren harreman tekniko eta prestakuntzakoak mantetntzea.

Era berean, ikastetxeek IKT ikastetxe-ereduaren deialdiaren bitartez parte hartzen badute proiektuan, irakasle erdiko ordu-kreditua izango dute “ikastetxeko IKT dinamizatzaile”arentzat, IKT ikastetxe-ereduaren proiektuari lotutako ekintzak garatzeko. Hona IKT dinamizatzailearen funtzioak:

- Laguntza-zerbitzuen laguntzaz, Hezkuntza Sailak definitutako *IKT heldutasun-eredua* aurrera eramateko ikastetxean garatuko den plan zehatzaren berri ematea.

- IKT heldutasun-ereduari jarraituta planaren barruan ikastetxeak burutzen dituen IKT ekimen guztiak dinamizatu, koordinatu eta gainbegiratzea.

- Ikasteetxean IKTen eguneratze pedagogikoa sustatzea eta horien bidez hezkuntza-komunitate guztia parte hartzera bultzatea:

o IKTak irakaskuntzan arrakastaz erabiltzeko, praktika onak argitaratzea eta esperientziak zabaltzea ikastetxeko irakasleen artean. Horretarako, irakasleei lagundu egingo zaie IKTak erabiltzen eta IKTak ikasgai eta etapetara egokitzen.

o Eskatzen zaizkion bileretara joango da IKT dinamizatzailea, hezkuntza-komunitateari laguntzeko IKTak erabiltzen, beti ere IKT ikastetxe-ereduan definitutako planaren barruan.

▪ Irakasleen prestakuntza-ibilbidea identifikatu eta gomendatzea, ikastetxearentzat ezarritako IKT heldutasun-maila lortzeko.

▪ Ikastetxeko teknologia-baliabide finko eta mugikorrak erabiltzeko ordutegiak eta moduak proposatzea Teknologia-baliabide finko eta mugikorrak eskuratzeko agenda ezartzea.

▪ Laguntza-zerbitzuek zehazten dituzten teknika- eta prestakuntza-harremanak izatea eta heldutasun-ereduan finkatutako helburuak lortzea.

## 10.- IKASTETXEETAKO OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA

**Osasun-larrialdiak ikastetxeetan:** Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu beharko dute, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

**Segurtasun Laguntzailea**: Dagozkion eginkizunak burutzeko astean 2 orduko murrizpena izango du bere irakas-ordutegian.. Prebentzio zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle honen ordutegian asteartean 8etatik 11etara klaserik ez izatea ahaleginduko da.

Zuzendaritza Taldeari gogorarazten zaio desiragarria litzatekeela laguntzailearen figura ikastetxean egonkortasun maila bat duen langileari esleitzea lanari jarraikortasuna emateko.

**Irakasleriaren prestakuntza prebentzio arloan:** Prebentzio arloan Hezkuntza Sailaren 31/ 95 Legearen 19. art. prestakuntza beharrarekin betetzeko xedez eta 31/ 95 Lege hau (29.art.) langileek betetzeko, irakasleriaren prestakuntza edo/ta ikastetxerako arduraldi orduetatik gutxienez urtero 2 ordu utziko dira. Prestakuntza Prebentzio Zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du beharrezko aurrerapen egokiz zehaztutako egun eta ordutegian.

**Larrialdietako simulazioak:** Ikastetxeetan ebakuazio jarduera gutxienez urtean behin burutzeko betebeharra gogorarazten dugu.

Ikastetxeko Zuzendaria indarreko araudia betetzeaz arduratuko da, ikastetxeetan ikasleen eta irakaskuntza mota alde batera utzita, **tabako eta alkoholdun edarien** espedizioa eta kontsumoa debekaturik baitago eta era berean hala eskatzen duten **ekipo eta instalazioen mantentzeaz.**

486/1997 Errege Dekretuak lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen ditu. Errege Dekretu horrek xedatzen duen arabera, lantoki orok gutxienez **botikin eramangarri bat** izango du, honako hauek edukiko dituena: **desinfektante eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak, erabili eta botatzeko eskularruak.**

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta iraungi edota erabili bezain laster ordezkatuko da.

Era berean, gogorarazten dizuegu **informazio gehiago** hurrengo helbidean duzuela: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net, Prebentzio-Zerbitzua zatian edo bestela Prebentzio Zerbitzuko teknikariei kontsulta eginez.

| *LURRALDEA* | *ESKUALDEA* | *TELEFONOA* |
|---|---|---|
| *ARABA* | *1 ESKUALDEA* | *945 01 84 51* |
| *BIZKAIA* | *1 ESKUALDEA* | *94 403 11 92* |
| | *2 ESKUALDEA* | *94 403 11 93* |
| | *3 ESKUALDEA* | *94 403 11 93* |
| | *4 ESKUALDEA* | *94 403 11 92* |
| *GIPUZKOA* | *1 ESKUALDEA* | *943 02 31 74* |
| | *2 ESKUALDEA* | *943 20 84 44 Ext 181* |

Horretaz gain ikastetxe publikoek langileenganako eraso kasuetan Jarduteko Gida edukiko dute.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 24a

| | |
|---|---|
| HEZKUNTZA ETENGABEKO SAILBURUORDEA | LANBIDE HEZIKETAKO ETA IKASKUNTZAKO SAILBURUORDEA |
| Izp.: Mª Antonia Ozcariz Rubio | Izp.: David Urzainqui Urzainqui |